2019

ETORKIZUNA **ERAIKIZ**

Kultura Politiko Berria

UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
UPV/EHU

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

G 21-19

ETORKIZUNA
ERAIKIZ

KULTURA POLITIKO
BERRIA

1. Argitalpena

—

LG D 00763-2020
ISBN 978-84-7907-818-8

UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
UPV/EHU

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

AURKIBIDEA

Ikastaroaren inaugurazioa **05**

MARKEL OLANO — Gipuzkoako diputatu nagusia 06
NEKANE BALUERKA — Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea 10

Kultura politiko berria **13**

ANTON LOSADA 14

Kultura politiko berriaren esperientzia praktikoa: argiak eta itzalak **26**

CAROLINA BESCANSA 27

Hiritar eta politikaren arteko erlazioa **33**

JOSE MARÍA SAN SEGUNDO ENCINAR
ROSA GÓMEZ 34

ETORKIZUNA **ERAIKIZ: kultura politiko berriaren adierazpena** **44**

XABIER BARANDIARAN 45

→

Ikastaroaren inaugurazioa

MARKEL OLANO

Gipuzkoako diputatu nagusia

Egun on eta ongietorri Donostiako Miramar jauregi honetara, batez ere kanpotik etorri zareten guztioi.

Ez dugu nolanahiko uda eduki Gipuzkoan. Bisitari kopurua gorantza doa eta mundu mailako aitortzak ere, aldi berean, biderkatzen ari dira alor askotan. Woody Allenek berak Donostia aukeratu du bere azken filma grabatzeko. Jauregi honetan bertan eduki zuen set nagusia.

Zorionekoak, beraz, oraindik udako opor osteko sindromea duzuenok. Horrek esan nahi du orain dela gutxi itzuli zaretela lanera. Kokaleku eder honek itzulera pixka bat gozatzea opa dizuet.

Txantxak albora utzita, nire eskerrik beroena eman nahi diet hizlariei, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gonbita onartzeagatik. Zuen jakintza aberatsa eta gogoetak balio handikoak dira. Lurraldean bultzatzen ari garen kultura politiko berria sendotzeko oso lagungarriak izango dira. Ziur nago.

Eskerrik asko, baita ere, ikastaro hau arretaz eta jakinduriaz antolatu duzuen guztioi. Eta nola ez EHUren Udako Ikastaroei.

Gaur, aitorpen txiki batekin hasiko dut hitzaldia. Aitorpen pertsonal txiki batekin.

Ordezkari politiko batek legealdi berri bati ekiten dioenean –eta hori da gure kasua–, beti izaten du tentazio bat. “Kudeatzaile klasikoaren tentazioa” deituko nioke. Erakunde baten egitasmo nagusiak finkatzeko garaian, xedeak soilik markatzea, baina helburu horiek lortzeko moduan pentsatu gabe. Horixe da tentazioa. Kudeaketa bizi eta bizkorra eskatzen digu gorputzak. Gero proiektu nagusi horien inguruan komunikazio estrategia antolatzeko.

Bigarren mailan geratzen dira, eskema klasiko honen arabera, gobernatzeko eredua, politikagintza garatzeko modua eta gizartearekin batera politikak bultzatzeko neurriak.

Ez da makala, inondik ere, egungo munduak bizi duen aldaketaren tamaina eta abiadura. Gizartearen eta ekonomiaren digitalizazio erabatekora bidean goaz. Globalizazioaren ondorioak nabarmenak dira. Komunikazio sistemaren eraldatzea ere hor dago. Nola ez, gizartearen aldentzea erakundeetatik; eta, horren guztiaren ondorioz, mundu osoan bizi dugun mehatxu larria: populismoaren eta mugimendu xenofoboen pizkundea, mendebaldeko demokrazien oinarriak astindu dituen fenomenoa. Europan bereziki mingarria gertatzen den errealitatea da hori.

Manuel Castells soziologoak joan den urteko abenduan ohartarazi gintuen. Bere ustez, orain arte ezagutu dugun demokrazia liberalaren oinarriak kolokan daude. Gizartearen mesfidantza gainditzeko zubiak berreraiki ezean, autoritarismoa gailenduko da.

Dagoeneko nabariak dira Castellesen hipotesia baieztatzen duten zantzuak. Denoi datozkigu burura gertuko hainbat adibide.

Erakunde eta lurralde txiki bateko ordezkari naizen heinean, norbaitek pentsa dezake eraldatze horrek ez duela gurekin zerikusirik. Gauzak nahiko txukun daudela gurean. Ez dagoela gure esku errealitate konplexu eta berri honi aurre egitea. Goragoko erakundeei dagokiela aldaketa horietara moldatzea.

Tentazio eta bertan-goxo jarrera horien aurrean, argi eta garbi esan nahi nuke: gauzak berdin egiten jarraitzea ez da posible. Herrigintza demokratikoan sinesten dugunok partekatu beharko genukeen gogoeta da. Demokraziaren eta gure gizartearen oreka eta ongizatearen oinarriak jokoan daude.

Herritarren eta erakundeen aldentzeari aurre egiteko, giltzarri dira gurea bezalako lurralde txikiak; Euskadi bezalako nazio txikiak. Tokian tokiko administraziook giltzarri eta aitzindari izan behar dugu. Ardura berezia dugu horretan, herritarrengatik gertuen gauden erakundeak garelako. Horretarako obligazioa dugu.

Hortxe kokatzen da, hain zuzen ere, konpromiso hau, Foru Aldundiak gobernantza eta kultura politiko berri bat bultzatzeko hartua duen determinazioa.

Horregatik guztiagatik, Udako Ikastaro hauen eztabaida gunea probestuz, hiru uste sendo plazaratuko ditut. Aldaketa hori gauzatzeko hiru konbentzimendu.

Lehen ziurtasuna. Ekintza, ekintza eta ekintza.

Ekintzak dakar benetako elkarlana. Esperimentatzeak, gai konkretuen inguruan elkarlan eremuak sortzeak, horrek dakar bata bestearen arteko konfiantza areagotzea. Kolaborazio espazioak ezin dira gogoetarako eremu soil izan. Gogoetak lankidetzaren norabidea markatzen du, bai, baina ekintzarako bultzadarik gabe, aurreko gurpilarekin bakarrik ibili nahi duen bizikleta bilakatzen da. Norabidea markatu bai, baina aurrera egiteko ezinbestekoa da atzeko gurpila ere. Ekintza, alegia.

Proiektu eta egitasmo konkretuak gauzatzea hil ala bizikoa dela iruditzen zait. Modu horretan, elkarlana bera eraldatzailea bihurtzen delako. Erakundeon eta herritarren arteko harremana beste modu batean bideratzen duelako, politika publikoak modu kolaboratiboan eraikitzea erraztuz.

Zinez diot: ezinezkoa izango da herritarren eta erakundeon arteko lubakia gainditzea, ekintza eta emaitza ukigarriak, begi-bistakoak, lortzen ez baditugu.

Adibide bat aipatuko dut. Etorkizuna Eraikiz gobernantza berriko egitasmoaren baitan, enpresetan gizon eta emakumeen aukera berdintasuna bultzatzeko lerro esperimental bat jarri dugu martxan. Dagoeneko 40 proiektu pilotu antolatu dira, beste hainbeste enpresetan, kontziliazio erantzunkidea eta berdintasuna bultzatzeko. 8.000 laguni eragin dien prozesua da.

Hainbat enpresetan dagoeneko aldaketa positiboak bultzatu ditu: ordutegi malguagoak, telelana, komunikazio hobea… eta enpresa horietako batean soldata arrakala % 9 murriztu da. 40 enpresa horiek, gainera, beren esperientziak partekatu eta lurralde osoan hedatzeko sare bat osatu dute: Erantzunkide sarea.

Modu parte-hartzailean garatutako lerro honen ondorioak gure politiketan txertatu ditugu dagoeneko.

Gipuzkoarrok baditugu, erakundeen eta herritarren lankidetza gauzatzeko bi baldintza, bi balio: ekintzarako eta elkarlanerako joera. Gipuzkoak badu gauzak egiteko eredu propioa. Gure enpresek, elkarteek, erakundeek… garai zailenetan ere eutsi diote jarrera horri. Hor dugu Mondragon, hor dugu lurraldeko gizarte babesa ziurtatzen duten hirugarren sektoreko elkarteak, hor ditugu eskualdeetako garapen egitura garrantzitsuak. Harrokeriarik gabe,

eredu hau aldarrikatu nahi dut. Lankidetzarako prestutasuna eta ekintzarako joera: horiek dira gure lurraldearen balio nagusietako bi.

Balio horiek gidatu behar dute gure jarduna alor guztietan, dela gizarte politiketan, dela errepideen kudeaketan, ekonomiaren garapenean edo gure jardun guztian. Gobernantza eredu berrietan sakontzeko lanean ere, horrek behar du izan zutabe. Ekitea, elkarrekin ekitea.

Bigarren ziurtasuna. Gobernantza berria helburu estrategikoa da.

Egoeraren konplexutasunak tamaina bereko erantzuna eskatzen du. Gobernantza berriaren erronkak erakundeon estrategiaren erdigunean kokatu behar ditugu. Ahalegin zintzoa eta estrategikoa egin behar dugu. Gizartearengana gerturatu, entzun eta mekanismoak egituratu, gizarteak deliberazio publikoan parte hartu dezan.

Gainera, ordezkari publiko guztiok, maila guztietan, arduratsu eta gardentasunez jokatu behar dugu. Hasteko, gure jokabideetan eta erabakietan gizartearen aldentzea elikatu gabe, maila eta une politiko guztietan.

Ez da baliozkoa politika berria bultzatzeko balizko neurriak defendatzea, gure jardun politikoan bestelako eskema bat aplikatzen badugu. Hori da, nire ustez, Estatuko panorama politikoan gertatzen ari dena. Politikagintzaren sinesgarritasuna berreskuratu nahi badugu, ezin ditugu gobernu berri bat osatzeko negoziazioak erabili kontrarioa ahultzeko edo norbere errelato politikoa indartzeko.

Adierazpen oldarkorrak, taktizismo erabatekoa, sare sozialetako akzio-erreakzioa, etenik gabeko “zasca” edo “belarrondoko” mediatikoak, kritika ez-eraikitzaileak... Zuzen-zuzenean dira politikaren sinesgarritasunaren ukatzaile.

Kezka handia sorrarazten didate halako jarrerek. Are gehiago, Madrilen gobernua osatzeko garaian blokeoa sorrarazten dutenean. Batetik, Gipuzkoarako ere garrantzitsuak diren proiektu batzuk geldirik jarraitzen dutelako. Bestetik, herritarrak oraindik eta gehiago urruntzen dituztelako erakundeetatik. Kultura politiko berriaren balioetatik urruntzen gaituzte erabat.

Egoera honen aurrean, Gipuzkoan eta, oro har, Euskal Herrian elkarrizketarako eta adostasunak lortzeko kultura jorratzen asmatu dugu azken urteotan. Guztion ardura da kultura horri eutsi eta berau elikatzea.

Hirugarren ziurtasuna. Gizartearen errealitate deserosoei erantzutea. Joan den urtean, hemen bertan egindako Udako Ikastaroan, Karen Sanders irakasleak populismotik atera beharreko ikasgai bat erakutsi zigun: errealitate deserosoei heldu eta erantzun bat emateko beharra.

Gizartearen beharrizan eta desafio berriei erantzun bat eskaintzea izan behar da erakundeon lanaren helburu nagusietako bat; esate baterako, mundu osoan zabaltzen ari den desberdinkeria, urte askotako utzikeriak eragindako aldaketa klimatikoa eta gure gizartearen krisi demografikoa.

Gizartearekin etengabeko harremanean, bide sistematizatu eta adostuak erabiliz, gai kritiko horiei erantzuteko ardura dugu. Erakundeen sinesgarritasuna hein handi batean hortxe dago jokoan. Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren bitartez, herritarren eta eragile sozioekonomikoen kezkak detektatu eta elkarlan espazioak sortu ditugu. Aipatutako desberdinkeria, aldaketa klimatikoa eta gizartearen zahartzeaz gain, zibersegurtasuna, mugikortasun jasangarria eta elikaduraren etorkizuna landu ditugu, besteak beste.

Amaitzera noa. Aipatutako hiru premisa edo ziurtasun horien gainean, lurraldeko kultura politikoa berritzeko ahalegin irmo eta benetakoa egiten ari da Foru Aldundia. Ahalegin hori xehetasun gehiagorekin

ezagutzeko aukera izango dugu ikastaro honetan.

Etorkizuna Eraikiz errealitate ilusionatzailea eta sendoa da. Legealdi berrirako erronka da ekimenari jarraipena ematea, bideratuta daden espazio eta proiektuetan sakondu eta berriak lantzea. Horrela, batetik, gure lurraldearen eta, erakunde gisa, Aldundiaren etorkizuna indartuko dugu; bestetik, elkarlanaren eta ekintzaren bitartez, gizartearen eta erakundeen arteko konfiantza berreskuratuko dugu.

Legealdi berriaren atarian, aukera hau probestu nahiko nuke zera adierazteko: Etorkizuna Eraikizen apustua indartu eta sakondu egingo dugu datozen lau urteotan. Ahalegin zintzoa eta benetakoa da. Gabeziak eta hobetu beharreko puntuak ere baditugu. Horretan zuen laguntza, akademiarena, oso lagungarria izango da.

Gipuzkoak baldintzak baditu erreferente bilakatzeko gobernantza kolaboratiboan eta kultura politikoaren berritzean. Dagoeneko aitzindariak gara. Nahi baino maizago eta gertuago ikusi izan dugu gizarte hausturaren amildegia. Badakigu zer nolako ondorioak ekar ditzakeen. Horregatik, gizarte gisa ditugun balioak oinarri hartuta, desafio berriei elkarlanean aurre egiteko abagunea eta premia dugu.

Horretarako tresna edo programa da Etorkizna Eraikiz. Desafio horiek antzeman, diseinatu eta esperimentatzeko eredua da; guztion artean politika publikoak abiarazi eta martxan jartzekoa. Erakundeen, enpresen, elkarteen, unibertsitateen eta lurralde hau osatzen dugun pertsonen artean. Gipuzkoa izan dadin bizitzeko, lan egiteko eta pertsona bezala garatzeko Europako lekurik onenetarikoa.

Hori da gure ekarpena errealitate edo arazo global bati aurre egiteko. Determinazio osoa dugu eta ahalegin zintzoa egingo dugu. Dei egiten diet lurraldeko erakunde, gizatalde eta alderdi politiko guztiei, inertzia gainditu eta gizarte bezala desafio hau partekatu dezagun. Gure gizartearen eta demokraziaren oinarriak daude jokoan.

Mila esker.

NEKANE BALLUERKA

Universidad del País Vasco/
Euskal Herriko Unibertsitatearen errektorea

—

Eusko Legebiltzarreko presidente andrea; Gipuzkoako diputatu nagusi jauna; Gipuzkoako Campuseko errektoreorde jauna; Gipuzkoako foru diputatu jaun-andreak; alkate jaunak; irakasle, ikasle eta lagunok.

Egun on guztioi eta nire ongietorri beroena ikastaro honetara. Eskerrik asko Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu eta Euskal Herriko Unibertsitateak babesten duen *Etorkizuna Eraikiz* proiektuari buruzko gogoeta saio honetan parte hartzera gonbidatu izanagatik.

Euskal Herriko Unibertsitateak gogotsu laguntzen du Gipuzkoarentzat funtsezko garrantzia duen Etorkizuna Eraikiz proiektuan, eta atsegin handiz jasotzen du kultura politiko berriari buruzko urteroko topaketa hau bere uda ikastaroen barnean.

Gizarteek eraldaketa sakon eta bizkorrei aurre egin behar diete. Eraldaketarik garrantzitsuena "pluralaren" erabilera beharrezkoa ez dela eta soberan dagoela da: gizarteetan baino gehiago, gizarte global/bakar batean, bizi gara. Horrek funtsezko aldaketa dakar planetan gure aurretik bizi izan diren belaunaldi eta zibilizazio guztiei dagokienez. Gorabehera gutxi zituen bizikidetza eredu egonkor bat agortu da, eta biztanleria mugimendu handiak, kultura mestizajea eta informazio fluxu masiboak nagusitu dira. Horrek guztiak iraultza soziala eta kulturala eragin du eta eragiten du. Oso denbora laburrean, gizarte estatikoak gizarte dinamiko bihurtu dira, eta aldaketa horrek begiratzeko, ekiteko, gobernatzeko beste modu bat eskatzen digu.

Gipuzkoako Foru Aldundia aspaldi ohartu zen errealitate horretaz. Hori horrela, Etorkizuna Eraikiz proiektuak gogoeta sakona egiten du gobernu moldeak beste errealitate batera egokitzeko beharraz.

Zentzu horretan, herritarren partaidetza espazio publikoan, politikan, aldaketa garrantzitsuenetako bat da. Herritarrek ordezkari politiko berriak aukeratzen dituzte, baina galdera berriak planteatzen dituzte baita ere: nahiko al da ordezkaritza sistema benetako demokrazia bat eratzeko?

Zer modutan eragin dezakegu erabaki politikoetan? Nola parte har dezakegu modu dinamiko eta aktiboan espazio publikoan? Zein da benetako gaitasuna herritarren aldetik proiektu sozialak egiteko eta haien garapenean parte hartzeko? Galdera horiek guztiak logikoak dira eta gero eta intentsitate handiagorekin planteatzen dira. Demokrazia aurreratuak ez ditu bakarrik erakunde demokratikoak bakarrik sendotzen, baita ohitura demokratikoak eta mugimendu demokratikoak ere.

Nik uste dut kontzeptu berri horrek, demokraziaren hedapenak, parte hartzeko gero eta zabalagoak eta eraginkorragoak diren formula berriak sustatu behar dituela. Demokrazia, dudarik gabe, ordezkaritza da. Baina demokrazia ere parte hartzea da. Eta gako honetatik, gaur egun egiten dugun topaketa honetan bezala hausnarketak erabilgarria izan daiteke.

Gogoratzen dut, joan den urteko edizioan, honako testuinguruan erabilgarria den metafora bat erabili nuela: "Norentzat gobernatu" eta "Norekin Gobernatu"-ren arteko aldea.

Kargu publikoa daukagun pertsonek kontziente izan behar dugu norentzat gobernatzeko paradigma zahar hori ez dela osatua. Kontua ez da "Norentzat gobernatzen dugun" baizik eta "Norekin gobernatzen dugun". Eta aurrean dugun erronketako bat parte hartzeko aurrerapena da. Hainbat erabaki-eremutan nola aplikatu ahal den aztertu behar dugu.

Nire aldetik, besterik ez. Zorionak ikastaro hau aurrera eramateagatik, eta benetan emankorra izatea opa dizuet.

ETORKIZUNA ERAIKIZ

Kultura Politiko Berria

G 21-19

LABURPENA

ANTON LOSADA

Santiago de Compostelako Unibertsitateko irakaslea

—

Anton Losada, Santiago de Compostelako Unibertsitateko irakasleak Kultura Politiko Berria aurkeztu zuen. Hitzaldi honetan, tradizionalki **kultura politiko bezala ezagutzen denari eragiten dioten joerei buruz hausnartu zuen**:

- **Ideiei baino, ekintzara lotuago dagoen eskaintza politiko baten existentzia.** Politika, geroz eta gehiago artikulatzen da egoera, ekintza edo gertakari zehatzen inguruan eta ez posizio ideologikoen inguruan.
- **Gizarteak politikan parte-hartzeko daukan moduan aldaketak eman dira.** Herritarrek politikan parte-hartu nahi dute baina beraiek erabakitako aukera ezberdinen bidez.
- **Erakunde politiko lau faltsuen eskaera,** *hiper*-lidertza eta zentralizatutako partaidetza politiko batekin.
- **Erakunde eta demokraziaren arteko etengabeko kontraesana.** Demokraziak funtzionatzeko, erakunde guztiak aldatu behar direla dioen "instituzio adanismo" bat dago. Hori dela eta, eztabaida politikoa bi jarreraren baitan artikulatzen da: alde batetik, partaidetza bidezko demokrazia defendatzen dutenak daude eta bestetik, autoritarismo demokratikoa defendatzen dutenak.
- **Eztabaida politikoa, politiketan oinarritu beharrean, haserrean funtsa daukaten kontakizunetan oinarritzen da.**
- **Komunikabideek** politika egiteko bakarrik bi modu daudela pentsatzera garamate: "zorroztasunetik", hau da, lehenengo ekonomia doala eta gero politika, edota "*likecraziatik*", hots, *like*-aren demokrazia, *like*, jarraitzaile...kopurua kontuan hartzen dituena.

"

Egun on, eskerrik asko Aldundiari, EHUri eta ikastaro honetako Zuzendariei. Nire hitzaldia izenburu bat jartzen eta nire erreferente bati omenaldi bat egiten hasiko naiz, Mariano Rajoyri, eta hau **"Kultura Politika Berria, edo ez?"** da. Agian ez da hain berria berritzat aurkezten diguten guztia.

Beraz, gaur egun etengabe errepikatzen diren joera batzuk laburtzen saiatuko naiz, tradizionalki Kultura Politiko moduan ezagutzen dugunean eragina izaten ari direnak, politika nola ezagutzen dugun edo nola hautematen dugun, politikak ze sentimendu eragiten dizkigun eta ze ebaluazio egiten diogun politikari. Hauek dira Kultura Politikoa kontzeptu klasiko moduan ikusita dituen hiru dimentsioak, kognitiboa, afektiboa eta ebaluatiboa.

Hitzaldi honetan, gaur egun asko errepikatzen eta komentatzen diren eta kultura politika moduan ezagutzen denari eragiten ari diren joera batzuk laburtzen saiatuko naiz. Nola ezagutzen edo hautematen dugu politika? Zein sentimendu eragiten dizkigu politikak? Nola ebaluatzen dugu politika?. Politikaren hitzaldi klasikoaren hiru dimentsioak kognitiboa, afektiboa eta ebaluatzailea dira. Joera batzuk daude, gehien bat Atzeraldi Handiaren ostean, politika ulertzeko daukagun moduari eragiten ari direnak, eta baita politikak eragiten dizkigun sentimenduei eta politikaren funtzionamenduari egiten diogun ebaluazioari.

Eskaintza politikoa, ideien eskaintza bat baino, ekintzen eskaintza bat dela da gehien egiaztatzen den kontua. Politika geroz eta gehiago egituratzen da egitura, ekintza eta momentuz zehatzen inguruan eta eztabaidak gertakari oso jakinen inguruan artikulatzen dira eta ez posizio ideologikoen inguruan. Izan ere, baliteke joera hau Jose Maria Aznarrek hasi izana, Ezkerra eta Eskuina berdin zela esan zuenean, garrantzitsuena kudeaketa zela.

Desagertu dela dirudien arren, han jarraitzen du. Honek azaltzen du aurkezten dizkiguten lider edo hautagai guztiak "gauzak egiten dituen" jendea dela, M. Rajoik esango lukeen moduan. Lider politikoak akzio-telesailetako protagonistak direla dirudi, eguna ekitaldien protagonista izaten pasatzen dute, gauzak egiten. Izan ere, arrakasta duten politikoek gehienetan ez dute diskurtso politikorik, baizik eta gauzak egingo dituztela promes egiten dute. Donald Trumpek, esate baterako, horma bat egingo duela hitzematen du. Matteo Salvinik Italiara etorkinik sartuko ez dela dio. M. Salvini azaltzen ari naizen honen adibide ona da. Ministro egon de ia bi urteetan, Ministerioan 20 egun bakarri egon da, gainerako egunetan Italiatik bidaiatzen egon da, portuak eta kuartelak bisitatzen, beti gauzak egiten, "performanceak" egiten, antzezten eta mugimenduan, Rock izar bat bezala.

Bigarren ondorioa demokrazian politika geroz eta gehiago bakarrik erabaki dimentsioarekin erlazionatzen dela da. Hau da, erabaki hartzeak eztabaida dimentsioa jan egin du. Ia-ia ez dago eztabaida publikorik, debate publikorik, elkarrizketa publikorik. Egun osoa botoa ematen ematen dugu. Sekula ez dugu hainbeste boto eman eta hain gutxi erabaki. Ez dakit zuek, baina ni azkenengo sei-zazpi urteetan askotan joan naiz bozka ematera. Erabakiak badirudi ez direla sekula hartzen eta etengabe dei egiten zaiola boto egiteko beharrari, kontutan hartu gabe zein den betiko prozesuaren emaitza. Hau da, politikak

lehendabizi demokrazia eztabaidatzen du eta azkenean bozka emango dugu beharrezkoa bada.

Horrek zerikusia du politika akzioa dela pentsatzearekin, gauzak egitea da, erabakiak hartzea. Esaten eta saltzen zaiguna hautesleak gauzak egiten dituen jendea eskatzen duela da, ez gauzak esaten dituen jendea. Lekura joaten den jendea, erabakiak hartzen dituena, harresiak zeharkatzen dituena, pertsonak besarkatzen dituena, umeak hartzen dituena... Hau da, *road movie* bateko protagonista izatea, politikaria etengabe mugimenduan egotea, sekula ez dakigu norantz doan, baina garrantzitsuena bidean dagoenean gauzak konpontzen doala da.

Badago adierazi ohi den beste elementu bat eta hau gutako bakoitzak politikan parte- hartzeko daukan moduan ematen ari diren aldaketei buruz da. **Betiko profil militantearekin alderatuta, profil aktibisten gorakada eman da.** Azken finean, politikan profil berriekin parte-hartzea bilatzen ari gara. Orain arte bi profil zeuden, ez parte-hartzea edo militatzea. Gaur egun, aukera gehiago egotea eskatzen da politikoekin erlazionatzeko. Badago jende asko militante izan ez nahi duena baina politikan parte-hartu nahi duena, ekintzailea izan nahi duena, aktibista. Gainera, **geroz eta herritar gehiagok eskatzen dute beraien gustuko konpromiso mota bat,** hau da, telebistako ordainketa kanalekin egiten duzun bezala, norberak erabakitzea zein ekintza politikotan parte-hartu nahi duzun, zein erantzukizun izan nahi duzun eta hautatu noiz parte-hartzen duzun hautatzeko aukera izatea, noiz aktibatzen zaren eta noiz desaktibatzen zaren. Hau da antolakuntza politiko askok konpondu nahi dutena, jendea inplikatzeko graduazio ezberdinak eskaini nahi dituzte eta herritar edo militar gehiago erakarri ahal izateko bere organizazio politikora.

Hirugarren ideia moduan, etengabe errepikatzen ari dena, **jendeak itxuraz planoak, lauak, hierarkizatuak ez direnak eta horizontalagoak diren erakundeak nahi dituela** da. Erakunde klasikoak bertikalagoak direnez, jendeak ez du haiengana jotzen. Bestalde, aldiz, lauagoak eta horizontalagoan diren erakundeetan inplikazioa daukate.

Nahiz eta etengabe herritarren artean nagusitzen den eskaintza erakunde lauagoak eta horizontalagoak direla errepikatzen den, ikusten dugu itxuraz horizontalak diren erakunde horietan, guztiz kontraesankorrak diren gauzak gertatzen direla. Erakunde hauetan, hierarkia-erakundeekin lotzen ziren *hiper*-lidergoa dago. Parte hartzea badago, baina parte- hartzeak 60. urteetako zentralismo demokratikoa gogora ekartzen du. Goitik datorren parte- hartze bat da.

Liderrak dei egiten die militanteei aldez hartutako erabakiak berretsi ditzaten. Itxuraz parte- hartzen da baina berez erabakia hartuta dago. Azken finean, berrespena bilatzen ari dira, niri, pertsonalki, zaila egiten zait hau azaltzea. Nola izan daiteke herritarrek aintzinako erakundeei uko egitea, hierarkia eta bertikaltasun gehiegi izateagatik, eta itxuraz horizontalagoak diren erakundeak onartzea, nahiz eta benetan funtzionatzeko modua besteena bezalako a den?

Bada beste elementu bat, gaur egun eztabaida dakarrena, **egiazko demokrazia versus erakundeak** da. Erakundeen barruan geroz eta gehiago erabiltzen den diskurtsoa, demokraziak arazoak dituela, ez dela posible modu demokratikoan eta demokrazia erakundetik kanpo dagoela. Hau da, erakundea eta demokrazia guztiz aldenduta daudela dirudi. Demokraziak guztiz funtzionatzeko erakunde guztia errotik aldatu behar dela dirudi, hau da, demokrazia posible egin duten erakunde guztiak, beraz, konpontzen ez den kontraesan bat dago hor eta diskurtso politikoan dagoena.

Espainiako eztabaida politikoa begiratzen baduzue, ez dago bat-batean aldatu beharreko erakunderik. Senatua ezabatu behar da, Kongresua aldatu, Botere Judiziala aldatu, Auzitegi Konstituzionalak ez du funtzionatzen ere ez... "Instituzio *adanismo*" bat dago non badirudi, demokraziak funtzionatzeko, erakunde guztiak aldatu behar direla. Behin eta berriroerrepikatzen den mantra bat dago, "demokrazia erakundeetatik kanpo dago eta erakundeetatik kanpo bakarrik funtziona daiteke demokratikoki". Espainian demokrazia egoteko guztiz aldatu behar da sare instituzional guztia.

Etengabe esaten dugu sistema kolapsatu egin dela, sistemak ez duela funtzionatzen, instituzioen kolapsoa aipatzen dugu baita ere... Guzti hau bitxia da, Pedro Sanchezen zentzura mozioan, esaterako, guztiok kongresua geldirik zegoela eta Espainiako sistema parlamentarioa funtzionatzeko gai ez zela esaten genuenean, teknikoki ezinezkoa zirudiena gertatu zen.

Honen ondorioz, eztabaida politikoa bi posizioren artean aurkitzen delaren irudia sortzen da:

• Batzuk *demokrazia parte-hartzailea* defendatzen dute geroz eta gehiago: benetako demokrazia batek partaidetza bultzatu behardu, hiritarrek erabakietan modurik aktiboenean parte-hartzea estimulatu behar du.

• Bestalde, *autoritarismo demokratikoa* dago. Hau da eskumako populismoak bultzatu eta ikusgai jartzen duena. Hauteskunde batzuk irabazteak, herri babesa izatea, sondeoek arrazoia emateak, demokraziak egitea uzteak... baimena ematen die hau egiteko. Demokraziak autoritario izatea baimentzen dit, boterera modu demokratikoan heldu naizenez, botere hori gauzatu dezaket modu autoritarioan.

Azkenengo hau da Donald Trumpen edo Salviniren politika egiteko moduan ikusten ari garena. D. Trumpen adibidea argiena da hau ulertzeko: hauteskunde batzuk irabazi eta presidentzia lortu ondoren, sistema sistematikoki indartu egiten du, instituzioak, arauak... babes demokratikoa daukala argudiatuz, babes hau ez daukatenen erakundeen aurrean. Baina nork ordezkatzen du demokrazia Estatu Batuetan? Trumpek. Nork ordezkatzen du sistema zaharra, burokrazia, ustelkeria? Kongresuak, Senatuak eta Auzitegi Gorenak. Zergatik? "Benetako demokrazia" guzti honetatik kanpo dagoelako. Beraz, Donald Trumpek irabazten du eta esaten du "garbitu dezagun Washingtoneko urtegia", erakundeak urtegi bat direlako, ustelez beteta. Nork irudikatzen du herri borondatea? "Nik", eta zer egingo duzu urtegia garbitzeko? "Behar dena egingo dut".

Ez dakit ezaguna egingo zaizuen hitzaldi hau, baina Espainian 2015tik entzuten ari garenaren oso antzekoa da. Zer dago politika eta erakundeetan? Ustelkeria. Eta zertarako aurkezten dira politikariak? Garbitzeko. Eta zer egingo dute garbitzeko? Behar dena. Baina hau antidemokratikoa izan daiteke, "ez, herri babesa daukadalako, demokrazia ni naiz, eta nire kontra agertzen diren guztiak, antidemokratikoak edo demokraziaren etsaiak dira". Honek eztabaida publiko batetara eramaten gaitu, ikusiko duzuenez, geroz eta gehiago eskatzen dituzte orain arte antidemokratiko bezala ikusten genituen zilegitasunak. Demokraziaren aurretiko zilegitasun induzitua dago, demokrazia hori aldatzea baimentzen duena.

Jada ezagutuko dituzuen hiru adibide aipatu nahi ditut.

• Merkatuen izenean hitz egiten duen jendea. Zilegitasuna ez dute erakundeek, hauteskundeek ezta demokraziaren funtzionamenduak. Zilegitasuna hori merkatuek espero dutenarekin bat datorren jakitea da.

• "Jendearen" izenean hitz egiten duen jendea. Jendeak esaten duena beratzat hartzen duena. Jendearen borondatearekin bat ez datorrena ez da demokratikoa.

• Adituek esaten dutenari etengabeko deialdia. Ilustraziozko despotismoa. Espezialki politika ekonomikoan horrela artikulatzen da diskurtsoa.

Beraz, geroz eta gehiago, lehen demokrazia aurreko zerbait bezala ikusten genituen aipamenak daude. Honek alderdi politiko askoren programa politikoetan dagoen modelo eta jarrera ideologiko faltarekin zerikusia dauka. Aurki dezakegun eskaintza politiko gehienaren barruan zaila da modelo bat aurkitzea, hala ere, ordena naturala zaharberritzeko errekurtsoa errazagoa da aurkitzea.

Arrakasta daukaten hitzaldi politiko gehienak iragan idealizatu batetara bueltatzeari buruz hitz egiten dute, gauzak behar ziren bezalakoak zirenera. Hau oso argi ikusten da azkenengo hauteskunde kanpainen esloganetan, Donald Trumpen kasua adibidez, "Make America Great Again" (Amerika handi egin dezagun berriro). Hala ere, hau ez da batere berria, kontserbadore guztiek beti berdina hitzematen baitute. Margaret Thatcherrek Erresuma Batuan irabazi zuenean erabilitako eslogana birformulaketa bat zen, "Back to Basic" (oinarrizkora buelta). Ideia bueltatzea da. Baina diskurtso hau bai eskumako partiduetan zein ezkerrekoetan erabiltzen da. Saltzen dutena, idealizatu dugun iragan batetara bueltatzea da, gustuko ez dugun eta nola funtzionatzen duen orainaldi batetik alde egiteko eta ezezaguna eta mehatxailea iruditzen zaigun etorkizun bati aurre ez egiteko.

Guzti honen ondorioz, ikusten baduzue, **eztabaida politikoak ez da politiken inguruan antolatzen, baizik eta kontakizunen inguruan.** Hezkuntza politikari, osasun politikari edota gizarte politikari buruz hitz egiten dugunean, adibidez, ez dugu politikei buruz hitz egiten. Hauteskunde kanpaina jarraitzen baduzu, ikusiko duzu kasik ez dela politiketaz hitz egiten, gainetik zerbait komentatzen da, zenbait zifra ematen dira. Baina ez dago datuei, ebaluazioari... buruzko eztabaida artikulaturik, hitzaldia kontaeraren inguruan eraikitzen da beti. Ez da zer egiten den azaltzen, baizik eta jendeak zer egiten dudan uler dezan, kontaera bat sortzea. Kontaera, gainera, oso sinplea beti, ni ona naiz, besteak gaiztoak, eta ni herritarrak etsaiengandik babesteko hemen nago.

Honek, alde batetik, erantzun sinpleak ematea baimentzen digu, oso zaila bada herritarrei azaltzea hezkuntza politika konplikatua dela. Zergatik daukagu eskola porrot hain handia? Bi ordu egon gaitezke hau eztabaidatzen. Baina jendeak ez du hori nahi, jendea ekintzaren bila dabil, ez du bi ordutan zehar gai hau zeinen konplikatua den entzuten egotea ("Laupabost gauza frogatzen ari gara, batzuetan funtzionatzen dutenak eta beste batzuetan ez..."), soluziorik ez dugularen ondoriora heltzeko. Hau ez da erez komunikabideek nahi dutena, ezta teorian hautesleek erez, hauek ekintza nahi baitute. Nola konpontzen da eskola porrota? Autoritatea eman behar zaie irakasleei, zein da osasun politiken arazoa? Zaharrei *paracetamolari* menpeko bihurtu direla, nola konpontzen da pentsioen arazoa? Lehenago hil beharko gara.

Pentsioen eztabaida paradigmatikoa da esaten ari naizen honen inguruan. Ikaragarrizko konplexutasuna du honek. Benetan adierazgarria den eta sinesgarritasuna daukan pentsioen sistemari buruzko azkenengo datua 2012 urtekoa da, eta orain 2019an gaude, baina denbora guztian gaude pentsioen kontaerarekin gora eta behera. Pentsioen eztabaida erabat sinplifikatu egin da, momentu honetan funtzionatzen duena haserre fabrikatzaileak dira, politika fakturatzaileak baino gehiago. Eskaintza politikoan, konturatzen baldin bazarete, haserre fabrikatzailez beteta gaude, *drama queens*-ez beteta, dena dira umiliazioak, dena da dramatikoa. **Fakturatzea eta inplementatzea garrantzitsuena zen politika baten aurrean, orain hitzaldi politikoa haserre diskurtso batean bilakatu da, jende haserrez beteta.** Geroz eta gehiago, eskaintza politikoa norabide horretan doa. Gaiak konplexuak direnez, erantzunik ez dudanez eta soluziorik erez, konponbiderik errazena haserretzea da.

Hirugarren elementu bat dago tartean, eztabaida politikoan dagoen **hautesleen arduragabetasunera etengabe jotzea.** Eskaintza politikoa gero eta gehiago saiatzen da herritarrei ezer ordaindu gabe, nahi dugun guztia emango digutela konbentzitzen, beste batek ordainduko duelako. Etekinak eta kostuak beti transferitu egiten dira eskaintza politikoetan. *Brexit*aren kasuan ikusi dezakegu. Irtenbide argirik ez dugunez, errudunak bilatzen ditugu. Bi urtetan zehar Theresa May izan da gaiztoa, inozoa eta astakeriak egin dituenak. T. May kenduta, bazirudien arazoa desagertu egingo zela. Baina arazoak jarraitzen du: inor ez da gai sentitzen britaniarrei erabaki txarrek bat hartu dutela esaten. Ezin da Europar Batasunetik atera besterik gabe, hartutako erabakia ordaindu beharko dute. Baina hauek frantsesek, irlandarrek edo Bruselasek ordainduko dutela diote. Guztiek, haiek izan ezik. Hori da eztabaida politiko nahiko errepikakorra.

Amaitzeko, azken gogoeta bat egin nahi nizueke, komunikabideekin zerikusia daukana. Beti esan da **komunikabideek errealitatea eraikitzen dutela.** Nik uste dut, komunikabideak errealitatea diren puntu batera iritsi garela eta horren kontra argudiatzeko eskua altxatzen baduzu, zu erratuta zaudela esaten dizute. Politikarien esanetan, errealitatea da gaizki dagoena, ez komunikabideek esaten dutena. Hau behin eta berriro gertatzen dela ikusten dugu, heltzen zaizkigun datuen eta komunikabideetan esaten denaren artean alde ezberdina dagoela.

"Gezur bat mila aldiz errepikatzen bada, egia bihurtzen da" esaldia ez da inoiz hain egia izan. Eta honek eztabaida politiko batera eramaten gaitu, non hor, norberaren arrazoiari kasu egin beharrean, etengabe bakoitzaren sentimenduak entzuten ditugu. Hau neuro-marketingaren bidez lortzen dute, emozioetan oinarritzen diren marketing horien antzera jokatzen da ere bai politikan. Hau da, gero eta gehiago egiten dira hauteskunde kanpainak eta iraupenak luzeagoak dira. Neuro-politika geroz eta orientatuagoa dago boto emailearen sentimenduak areagotzera, ez du bere ebaluazio gaitasuna, hausnarketa, ezta arrazonamendua bultzatu nahi, ez da hau bilatzen duena.

Beste ondorio bat, oso hautemangarria dena baita ere, bikaintasun mediatikoa bilatzea. Fijatzen bazarete, orain gauden politika momentuan *curriculum*ak zerikusi gehiago dauka pertsona bat zerbatetan agertu den komunikabideetan eta pertsonaia ezagun eta popularra bazara, *curriculum* profesional, tekniko, akademikoarekin eta formakuntzarekin baino. Azken hauteskundeetako zerrendetan argi ikusten zen hau, nola alderdi politikoen artean lehia zegoen, beraien zerrenda politikoetan bikaintasun mediatikoa, jende popularra, jende ezaguna sartzeko, toreatzailea, abeslariak, *reality show*etan parte-hartzen dutenak... Orain dela 15-20 urte notizia alderdi politiko baterako katedradun edo zientzialari bat hautatua izan zela zen, eta orain berriz, albistea toreatzailea edo *Operación Triunfo*ko parte- hartzailea alderdi batean sartu dela da.

Orain, esandako gauza batzuk ezeztatuko ditut, haietako batzuk, politikaz hitz egiten ari garenean *mainstream* bihurtu direnak, eztabaidagarriak direlako. Datu batzuk ekarri ditut, seguruenik mila aldiz entzun dugun hau, egia edo gezurra den jakiteko. Horretarako, CISeko datuak hartu ditut (*Consejo de Investigaciones Sociológicas*):

• Hauteskunde orokorretako aurreko galdetegia, 25.000 kasurekin.

• Hauteskunde ondorengo galdetegia, 12.000 erantzun ingururekin.

Bi galdetegi hauek baliagarriak izan daitezke aurkeztu ditudan hausnarketa batzuk marko batean kokatzen:

• Demokraziarekin oso atsekabetuta gaude, baina jendeari galdetzen diogunean hori egia ez dela diote. Ondorengo zein esaldietatik zeinek definitzen du hoberen demokraziaren inguruan daukazun iritzia? Demokrazia beste gobernu formak baino hobea da. Erantzunen %85,4 (ikusi beheko irudia).

—

1. Irudia.
Demokraziaren inguruko herritarren iritzia.

—

Ondorengo zein esaldik islatzen du hobeto demokraziarekiko duzun iritzia?

Hobe demokrazia beste edozein gobernatze era baino.	**85,4**
Egoera batzuetan, hobe larderiazko Gobernu bat sistema demokratiko bat baino.	**4,7**
Ni bezalako pertsonentzako, berdin da Gobernu bat zein beste bat.	**5,7**
E.D.	**3,5**
E.E.	**0,6**
(K)	**(5.943)**

ITURRIA: CIS 3248. 2019ko Apirilean egindako hauteskunde ondorengo galdetegia.

Baina hau erantzuten dutenei demokraziari buruz orokorrean hitz egiten badute galdetzen bazaie, ezetz diote, Espainiako demokraziari buruz hitz egiten ari direla diote. Espainiako demokraziaren funtzionamenduari emandako nota unibertsitatean oso ongi altu bat izango litzateke. Baina etengabe politikoki gauzak gaizki daudela entzuten dugu, politiko eta erakundeek ez dutela funtzionatzen, politikek ez dutela ezertarako balio, gobernuek alferrikako gauzak egiten dituztela... Baina jendeari galdetzean, ez dira erantzun hauek agertzen. Asebetetze maila nahiko on bat agertzen da (ikusi beheko irudia).

—

2. Irudia.
Herritarrek Espainiako demokraziaren funtzionamenduarekin daukaten asebetetze maila.

—

Ze neurritan zaude asebetea Espainiako demokraziaren funtzionamenduarekin? Erabili 0-tik 10-rako eskala, non 0 "erabateko desadostasuna" eta 10 "erabateko asebetetzea" diren.

0 Erabateko desadostasuna	**7,1**
1	**3,1**
2	**5,9**
3	**7,8**
4	**8,7**
5	**19,5**
6	**14,0**
7	**13,9**
8	**10,7**
9	**3,3**
10 Erabateko asebetetzea	**2,8**
E.D.	**2,7**
E.E.	**0,3**
(K)	**(5.943)**
Batazbestekoa	**5,1**
Ohiko desbideraketa	**2,5**
(K)	**(5.764)**

ITURRIA: CIS 3248. 2019ko Apirilean egindako hauteskunde ondorengo galdetegia.

Bistakoa da komunikabideetan, akademian, eztabaida publikoetan... egunero errepikatzen diren ideiak ez datozela bat herritarren iritziarekin. Hau da argi utzi nahi dudan gauza bat.

• Komunikabide eta kultura politiko berriaren inguruan, hemen bai, nik uste dut datuek ni laburtzen saiatu naizela ondo islatzen dutela. Beti telebistan emandako demokraziari buruz hitz egiten da, demokrazia ikuskizun moduan ikusteari buruz.

—
3. Irudia.
Gai politikoei buruz informazioa lortzeko erabiltzen diren komunikabideak.

—
Zein bide lehenesten duzu gai politiko eta hauteskunde kanpainari buruz informatzeko? Eta bigarren? Eta hirugarren?

	Lehen tokian	Bigarren tokian	Hirugarren tokian	GUZTIRA
Telebista kateak	62,3	16,2	5,6	84,1
Irrati kateak	7,8	19,0	7,8	34,6
Egunkariak	7,8	15,0	13,3	36,1
Sare sozialak (internet)	13,6	16,3	9,6	39,5
Harreman pertsonaletatik eta topaketetatik, mitinetatik eta abar	1,6	4,6	6,3	12,5
Bestelako bideak	0,4	1,1	1,7	3,2
Ez da informatzen; ez du interesik politikarengan	6,2	1,9	1,1	6,2
E.D.	0,1	7,8	9,9	0,1
E.E.	0,1	18,0	44,7	0,1
(K)	(16.194)	(16.194)	(16.194)	(16.194)

ITURRIA: CIS 3248. 2019ko Martxoko Makrobarometroa.

Nik uste dut datu hauei esker ulertu ahalko dugula non gauden. Adibidez, hauteskunde aurreko galdetegian herritarrei galdetu zitzaien zein baliabide erabiltzen zuten gai publikoei buruz informatzeko: lehen postuan, besteetatik oso aldenduta, telebista zegoen eta bigarren informazio iturria *twitter*-a zen, arazo konplexuak azaltzeko informazio-iturri oso fidagarria ez dirudiela honako hau.

Zergatik erantzun arruntak ematen dizkiegu arazo konplexuei? Informazio mekanismo sinpleak bilatzen ditugulako. Konplexutasuna azaltzea ezinezkoa den plataformak geroz eta gehiago erabiltzen ditugulako. Sinplea da funtzionatzen duena, eta gainera honi afektiboa dena gehitzen badiogu, gehiago funtzionatuko du oraindik. Sare sozialek ez dituzte argudio logikoei erantzunak bilatzen, baizik eta "gustuko dut" edo "ez dut gustuko". Horregatik, mezu politikoak sentimenduetara bideratzen dira, kontziente garelako orain sare sozialen bidez informatzen garela eta plataforma hauetan erreakzio afektiboa da kontuan hartzen dena, gustuko dut ala ez, alde nago ala kontra... Instagramen ez dago "ez dakit", "baliteke" edo "konplexua da" dioen botoirik.

• Garrantzitsua den beste datu bat da, askotan jendeak esaten duela sare sozialetan komunikabideetara bideratzen diren estekak txertatzen direla, baina hau ez da horrela. Sare sozialak komunikabideetara sartzeko erabiltzen dituzten pertsonak nahikoak dira, baina, geroz eta hurbilago dago sare sozialak beraiek jarraitzen dituzten pertsonen iritziak irakurtzeko erabiltzen dituzten multzoari.

Beraz, sare soziala ez da baliabide bat betiko komunikabideetara heltzeko, baizik eta, ibilbidearen amaiera da. Hau da, nik *Facebook*en irakurriko dut nire ezagun batek gai bati buruz pentsatzen duena, berataz asko fidatzen naizelako, edo *YouTubeko influencer* baten bideo bat ikusiko dut bere jarraitzailea naizelako. Honek zerikusia dauka, gaurko gaiarekinerlaziorik ez daukan arren, herritarrok komunikabideekiko daukagun konfiantza krisialdiarekin, hots, gure koinatak esaten digunaz gehiago fidatzen gara, *El País* egunkariak edo *Cadena SER* irratiak esaten duenaz baino. **Geroz eta gehiago bilatzen dugu pertsonalki ezagutzen dugun edo ezagutzen dugula uste dugun norbaitengandik informazioa jasotzea.** Hau fenomeno bitxia da, famatuak edo *influencer*- ak hainbestetan telebistan edo *YouTube*n ikusi ondoren, uste dugu ezagutzen ditugula eta lagun bezala ikusten ditugu.

*Facebook*en "lagun" kontzeptua nahiko engainagarria da. Norbaitekin pantailatik elkarri egin ondoren, zer egiten duen, zer jaten duen, non dagoen ikusi ostean, pertsona hori ezagutzen duzula iruditzen zaizu. Beraz, komunikabideak alderdi politikoetako informazio iturri bezala ikusten ditugu orain, edota kazetarien iritzia daukatenak. Fenomeno hau argi ikusi zen Brasil edo EEBB-tako hauteskundeetan. Zergatik gailendu zen D. Trump betiko komunikabideen etsaitasunetik? Jendeak jada ez duelako haienganako konfiantzarik eta azkenean, norberak ezagutzen duela uste duen pertsona batek esaten duena sinisten du, Esloveniatik lan egiten duen *bot* bat den arren.

Fenomeno hau geldiezina dela ikusteko, adinari begira, telebistaren erabilera gazteen artean jaisten dela ikusten dugu eta sare sozialena, aldiz, zaharragoen artean. Hala ere, gure eta 24 urte beherakoen artean antzekotasuna dago, telebistaren erabileran (gure kasuan) eta sare sozialenean (beraien kasuan). Gaur egungo gazteek ia-ia ez dute telebista ikusten; nire alabak, adibidez, 18 urte dituela, ez daki zer den Antena 3. Guk telebista kanalei, informazio zerbitzuei eta abarrei buruz daukagun ideia hiltzen ari den zerbait da eta hau saihestezina da.

—
4. Irudia.
Gai politikoei buruz informazioa lortzeko erabiltzen diren komunikabideak, adina kontuan hartuta.

		Pertsona elkarrizketatuaren sexua		Pertsona elkarrizketaturaren adina					
	GUZTIRA	Gizona	Emakumea	18/24 urte	15/34 urte	35/44 urte	45/54 urte	55/64 urte	> 65 urte
Gai politiko eta hauteskunde kanpainari buruz informatzeko erabiltzen dituzten bideak									
Telebista kateak	84,1	83,1	85,1	79,8	79,3	80,9	84,7	87,7	87,9
Irrati kateak	34,6	38,8	30,6	13,2	23,1	33,8	40,6	41,0	39,4
Egunkariak	36,1	41,1	31,4	28,2	34,4	37,7	38,5	41,6	32,8
Sare sozialak (internet)	39,5	40,5	38,6	72,2	65,3	53,5	41,0	29,6	9,7
Harreman pertsonaletatik eta topaketetatik, mitinetatik eta abar	12,5	11,3	13,7	17,4	14,2	12,4	12,1	11,5	11,1
Bestelako bideak	3,2	3,7	2,8	5,2	3,9	4,0	2,9	3,2	2,0
Ez da informatzen; ez du interesik politikarengan.	6,2	5,3	7,1	7,0	6,2	5,7	5,3	5,3	7,6
E.D.	0,1	0,1	0,2	0,2	0,3	0,1	0,1	0,1	0,1
E.E.	0,1	0,1	0,1	0,2	0,2	0,1	0,1	0,1	0,1
(K)	(16.194)	(7.842)	(8.352)	(1.257)	(2.140)	(3.109)	(3.108)	(2.594)	(3.985)

ITURRIA: CIS 3248. 2019ko Martxoko Makrobarometroa.

Beste datu interesgarri bezala, jendeari politika kanpainari buruz galdetzean, nahiz eta parte-hartze gehiago eskatzen den azken urteetan eta nahiz eta alderdi eta erakunde politikoak geroz eta esfortzu gehiago egiten ari diren gu politikan interesa izateko, azkenean kanpaina politikoa beti izan den bezalakoa izaten ari da, hau da, jendeak telebista ikusten du, irratia entzuten du edota hauteskunde propagandaren bat entzun edota irakurtzen du. Bestalde, zuzeneko inplikazioa daukatenak, alderdi politiko batean bolondres bezala jarduten dutenak, mitin batera doazenak, alegia, oso gutxi dira. Guzti hau bitxia izaten jarraitzen du, guztiok politikan parte-hartze gehiago izateko aukera eskatzen dugu eta alderdi politikoek hori eskaintzen dutela esaten dute baina azken finean, kanpainak beti izan diren modukoak dira, telebistan aurkezten dutena, hauteskunde propaganda eta eskuorriak.

Politikariek gauzak bidaltzen dizkigute eta guk nahi badugu hartzen ditugu, eta ez badugu nahi, ez. Normalean ez dago bi noranzkoko komunikaziorik. Gainera, jendeari teknologia berriekin (sare sozialen edo posta elektronikoaren bidez) politikariekin zenbat komunikazio izan dituen galdetzen zaionean, oso jende gutxi da horrelako interakzioak jasotzen dituenak. Ez dirudi alderdi politikoek garrantzi ematen diotenik honi. Beraz, gure galdera hurrengoa da: sare sozialetan jasotzen dugun informazio hori nork eskegitzen du? Informazio hori ez badator komunikabide ofizialetatik eta ezta alderdi politikoetatik, nork eskegitzen du? Politika berriak eskatzen ditugu baina kanpainak beti bezala funtzionatzen jarraitzen dute. Bozkatzera doan jende askok ez daki nondik datorren haiek daukaten informazioa, ez baitator komunikabide ofizialetatik eta ezta partidu politikoetatik erez.

Jendeari zergatik alderdi zehatz bat bozkatzen duen galdetzen zaionean, betiko erantzunak agertzen dira: partidu horrekiko Identifikazioa, Lidertza eta Fideltasuna. Politika egiteko modu berri batean sartu gara, politikan parte-hartze modu berriak eskatzen ditugu, baina bozkatzeko arrazoiak gutxi aldatu dira azkenengo 30 urteetan.

Ondorioz, "guztia aldatu dugu berdin jarrai dadin?" izango litzateke galdera.

• Lehenengoz, datu guzti hauek ikusita, gauzak asko aldatu diren dirudien arren, ez dira hainbeste aldatu.

• Bigarren ideia moduan, antolaketa eta parte-hartze modu berrien bila gaude baina erakunde politikoek ez dute lortzen gure behar hauei behar bezalako erantzun bat ematea. Jendeak uste du alderdi politikoak direla politika egiteko modurik onena, politika egiteko beste era hoberik egongo balitz, Jaungoikoak aspaldi asmatuko zuen. Eskatzen duguna parte-hartzea da eta alderdiak ez diote eskaera horri erantzuten.

• Gu guzti honen atal aktibo bat gara, ez gara inuzenteak, errazagoa bada ere besteei egoera honen errua botatzea.

• Geroz eta gehiago lantzen da politika eta kontaeraren arteko erlazioa (ez politika eta politikaren artekoa).

• Politika bi bidetatik bakarrik egin daiteke, *austerokraziatik*, hau da, lehenengo ekonomia doala eta gero politika esaten duen teoriatik (ekonomiak baimentzen digun politika egin dezakegu) edo, *likekrazia like*-n demokrazia, *like* eta jarraitzaile kopurua dira hartutako erabakiak legezkotzat jotzen dituenak. Besterik gabe, mila esker.

LABURPENA

Kultura politika berriaren esperientzia praktikoa: argiak eta itzalak

CAROLINA BESCANSA

Madrilgo Konplutense Unibertsitateko irakaslea

Carolina Bescansa, Madrilgo Konplutense Unibertsitateko irakasleak "Kultura politika berriaren esperientzia praktikoa: argiak eta itzalak izeneko hitzaldia aurkeztu zuen, bere mintzaldian zehar izenez aldatu zuena: "Politikaren praktikaren itzal berriak: Esperientzia eta Kultura".

Carolina Bescansak bere hitzaldian 78ko Erregimenaren deskonposaketari eta 2008ko finantza eta ekonomia krisialdiaz geroztik sortutako egoera politikoari buruz hitz egiten du. Azkenengo 40 urteetan, **gizarteko diskurtso ideologikoak osatzen diren sistema aldatu egin da.** Horrela, Bescansarentzat, Espainian hitzaldi politikoaren sinesgarritasuna, lehenik, ardatz nagusia herrialdearen europartzean jarrita dituzten errekurtso epiko edo poetikoen erabileratik aurrera eraiki zen. Gero, hau erreferentzia teknokratiko bilakatzen joan zen, europar edo mundo mailako autoridade ekonomiko eta politikoen aipamenak etengabe erabiliz. 2016tik aurrera, aldiz, konbentzitze erretorika baten presentzia dago, non "egi" efektua hitz egiten eta entzuten duenaren arteko tartearen ezeztatzean oinarritzen da. Hau da, ohiko elementu popularren bidezko norberaren estilo espresiboaren debaluazioan oinarritzen da. Diskurtso-erretorika honen ezaugarriek, Espainia oraindik demokrazia zuzen batek izan behar duen sinesgarritasun maila sortzeko diskurtso-marko politikoa berreraikitzetik urrunago aurkitzea eragiten dute.

“

Orain dela zenbait hilabete kurtso honetara etortzeko gonbidapena jaso nuenean eta hasieran, dena guztiz normala eta hausnarketa politiko eta akademikoaren parte iruditu zitzaidan.

Gonbidapena jasotzean, **ALFONSO UNCETA**rekin elkarrizketa eroso eta argigarri bat izan nuen eta bai kurtsoaren zein nire hitzaldiaren gaiak argiak eta egokiak iruditu zitzaizkidan. Orain dela aste batzuk, aldiz, hitzaldia prestatzera eseri nintzenean, bat batean izenburuan zenbait arazo aurkitu nituen, **“KULTURA POLITIKA BERRIAREN ESPERIENTZIA PRAKTIKOA: ARGIAK ETA ITZALAK”**. Izenburua askotan irakurri arren, ez nekien nola hasi nire diskurtsoa idazten.

Nire lehenengo arazoa “kultura politikoa” terminoa izan zen, hizkera arruntan, kultura politikoa herritarrok politikarekin erlazionatzeko daukagun modua da. Zientzia politikoaren munduan, berriz, kultura politikoa termino oso zehatza da, orain dela 80 urte inguru diziplina hau eratu zuten Ipar Ameriketako politologo batzuek ziotenez, Gabriel A. Almond eta Sidney Verbak, hain zuzen ere, herritarrok politikarekiko daukagun orientazio eta sentimendu multzoa. Definizio hau niri ez zait batere gustatzen, uste dudalako honek dioenez, herritarrok politika modu unitarioan eta hegemonikoan ikusten dugula eta historiak eta eguneroko bizitzak hau horrela ez dela frogatu du eta pertsonen, erlazioen edota diskurtso ideologikoen eraikuntzak beti konfrontazio edo eztabaida tarte bat planteatzen du beti, eta hemen da politika erreala mugitzen den lekua.

Buelta asko ematen nizkion arren, ez nekien nola hitz egin nezakeen haiek eskatzen zidatzen “horretaz”, haiek emandako hitz horiekin.

Orduan, hoberena hitzen ordena aldatzea zelan konturatu nintzen.

• Kultura politiko praktikoa. Ez.
• Esperientzia politikoa eta argi berriak. Ez.
• Praktika politikoak eta itzaleko esperientziak. Ez.

Azkenean, alde batetik, kurtso honetako zuzendariek espero zutenarekin, eta bestetik, nire ustez gure herrialdean orain dela zortzi urtetik gertatzen ari dena azaltzen duena ulertzeko izenburua aurkitu nuen.

POLITIKAREN PRAKTIKAREN ITZAL BERRIAK: ESPERIENTZIA ETA KULTURA

Argiak falta direla esango duzue. Ba bai, argiak falta dira, baina ez nik kentzen ditudalako, baizik eta asuntu honi argiak falta zaizkiolako gaur egun.

ESPERIENTZIA ETA KULTURA gaizki ez direla oso ondo gelditzen esango duzue baita ere. Ba bai eta ez, egia esan. Sistema politikoak erakusten ari diguna bereizki enpirikoa da, esperientziatik haste da eta Espainiako elite politiko zaharren kultura politikarekin guztiz erlazionatuta dago. Honekin, baimenduko didazue izenburu berri honekin hitzaldia ematea, **POLITIKAREN PRAKTIKAREN ITZAL BERRIAK: ESPERIENTZIA ETA KULTURA**

ESPAINIAKO SISTEMA POLITIKOAREN DESKONPOSAKETA ETA BLOKEOA

Hamar urte pasa dira eta **78ko erregimenaren deskonposaketa** prozesuan jarraitzen dugu, ondoren etorriko den organizazio politiko mota **azkenengo 40 urteetan ezagututakoaren antzekoa edo** ezberdina izango den antzematea ezinezkoa izanda. Badakigu 78ko Erregimenaren sistemaren deskonposaketa maila ezberdinetan eman zela:

• Lehenik, maila materialean, mundu mailako finantza krisialdiarekin zerikusia daukana.

• Bigarrenik, maila politikoan, lehenengo 15M-an espresatzen dena, indar suntsitzaile handi baten sorkuntzan. Nik uste dut hau dela sistemaren deskonposaketa ematen hasteko gakoa. Lehenengo indar suntsitzaile hau, hasieran nahiko nahasia, heterogeneoa eta koloreaniztuna dena, lau urte behar izaten ditu 1977tik ezagutzen genuen alderdi sistema eraldatzen eta 2016an etapa berri bat dator eta oraindik hor sartuta aurkitzen gara, blokeo etapa. Sistema politikoa standby batean aurkitzen da 2016 urtetik eta horrela jarraitzen dugu, ikusiko dugu hau nora doan.

• Hirugarrenik, krisialdi soziala da hau ere bai, deskonposaketa sozial moduan espresatzen dena. Adierazle desberdinak erabili ditzakegu baina nire ustez, hiru dira bereziki garrantzitsuak.

. Lehenengoa, hazkuntza begetatiboaren tasekin zerikusia daukana. Hauek adierazten dute zein puntutaraino erregimenaren krisialdi batean aurkitzen garen. Espainian jaiotza baino heriotza gehiago ematen dira, ikuspuntu global batean itxaropenek gizartea ugaltzeko ezgaitu egiten duen egoeran jarraitzen dugu.

. Herrialde honetan despopulatze krisialdiak geroz eta gehiago eragiten die lurralde eremu erraldoiei.

. Eta lehenengo aldiz, krisialdiak aldaketak ekartzen ditu migrazio saldoetan, ezagutzen dugun granate koloreko marea agertzen da eta nolabait, bi hamarkadetan zehar etengabeko sarrera-isuri prozesua zena, ateratze-isuri prozesuekin erantzuten hasten dira eta sarrera-isuriaren beherakada nabaria ematen da.

• Laugarren maila **ideologiko eta kulturala** da, erregimenaren deskonposaketa. 2011an garrantzi historiko handia duena zerbait gertatzen da, lehenengo aldiz, 40. urteetatik, kontzeptu hegemonikoaren krisialdi bat ematen da (eta hemen bai, kultura politikoari buruz hitz egingo nuke nik), **aurrerapen ideia kolokan** sartzen da. Lehenengo aldiz, sozialki aintzat hartzen hasten da **generazio berrienak aurrekoak baino egoera material, juridiko eta politiko txarragoetan biziko direla.** Sistemak, egiazkotasun demokratiko (korrupzioa), historiko (transitzioaren birpaso kritikoa) eta kulturalei (aisialdi eta denbora-pasa vs. Gaitasun kritikoa eta formakuntza) buruz hitz egiteari uzten dio.

Azken finean, **gizarteko hitzaldi ideologikoen sistema aldatu egin da.**

POLITIKAREN PRAKTIKAREN ITZAL BERRIAK: ESPERIENTZIA ETA KULTURA

2008ko krisialdiak era sakon batean aldatu egin zituen herrialde hone hitzaldi ideologikoak. Baina nire iritziz, ez hainbeste edukiengatik, baizik eta **sistema politikoarekin daukan konexio motagatik.**

2011an Jose Luiz Rodriguez Zapateroren porrota ematen da, troikaren[1] aurrean. Lehenengo **15Ma 2011n** eta gero, **2015ean emandako alderdien sistemak, pausu ematen dio Espainiako kargutik kentzeko krisialdirik handienera. Orduan, zer gertatu zen?**

Egoera hauetan normala dena: **erreakzio mugimendu.** Erreakzio mugimenduak **ez dira ezkerrekoak ezta eskuinekoak** erez, baizik eta osatutako orden batenganako autodefentsa mugimenduak dira. Normalean bere burua defendatzen duena aurreko ordenean botere postua zeukana da, bere egoera mehatxatzen duen eraldaketa bat ematen ari dela ulertzen duelako.

Mugimendu honen helburua guztion artean haustura indarrei (Podemos eta bere

[1] Troika hitzak aipamen egiten dio Europar Batzordeak (EB), Europako Banku Zentralak (EBZ) eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) eratutako erabaki talde bati.

bategiteak) birsorkuntza indarrei (momentu horretan, Ciudadanos) aurre egitea izan zen. 2015ean sortu zen indar defendatzaile hori eta honen xedea sistema blokeatzea da.

Hala ere, alderdien sisteman ematen den eraldaketa (ez politikaren sisteman) ez die bakarrik alderdi zaharren estrategiei eragiten, baizik eta, 2016 urtean, Estatuaren indarra eskasa denean argi geratzen denean, hau da, ez haustura ezta birsorkuntza indarrak beraien kabuz aldaketa sortzen gai ez direnean, eraldaketa bat ematen da gelditzen direnen estrategietan, hots, PP eta PSOEren estrategietan, eta baita heldu berri direnetan.

Estrategia berri hauek, alderdien sistema blokeatzen denean, alderdi berrien estrategia berriak aurrera doa honako norabidean: Alde batetik, **Ciudadanosen** eraldaketa sorkuntza jarrera batetik ematen da, beraien 2014ko diskurtsoa zen bezala, guztiz beligerantea de **nazionalismo espainiar posizioetara,** Espainiako erregimeneko indar erreakzionario nazionalistak baino beligeranteago oraindik. **Podemosen** kasuan, sistemaren blokeoa dakarren eraldaketa estrategikoa da, hau da, 2016an *status cuo*-a aldatzeko ezgaitasuna, kargutik kentzeko herritarren indarren gehitzearen helburuak, **instituzio indarren gehitzea**gatik ordezkatzean datza. Estrategia horrek, era erabakigarri batean eraldatzen ditu herritarren estrategiak, Podemosena bezalakoa, adibidez.

Bi prozesu hauek **elkarren artean uxatu** egiten dira, eta honek, **15M**-an sortutako **indarren gehitzea desagertzea eragiten du.** Hau da, bi pertsona taldeak elkartzen zituzten kargutik kentzeko akordio oinarriak jada ez dira existitzen, alderdi politikoen sorkuntzarekin desagertu dira.

Erregimeneko **partidu handiak haien historiako krisialdirik handienean sartzen dira. PSOE,** alde batetik, **kontraesan politiko eta ideologikoen** pilaketagatik eta **PP**a, bestalde, **korrupzioagatik.**

2014-2015 urtean alderdi sistemak porrot egin zuen eta honekin batera, alderdi- bitasunaren erretorika politikaren erabilerak. Izan daiteke **PP-PSOEren *txandakatzearen* persuasio erretoriken erortzea** gertaera huts bat izatea, baina ondorioek garrantzia izan dute.

Sistemaren politika erretorika 78tik aztertzen badugu, ondorengoa topatuko dugu: trantsizioaren amaierean, erregimenak bere errelatoaren oinarria **"europeatzearen" bitartez Espainiako behin-betiko demokratizazioaren epikaren** gainean eraikitzen duela. Líder politikoek etengabe Antonio Machado, Miguel Hernández eta José Ortega y Gasseten aipamenak erabiltzen dituzte. **Garai hori autoerretratu epiko eta egiantzekotasun petiko baliabidez beteta dago.**

Gizarteko gehiengo handiek, aldiz, **"garapen felipista" joerari jarraitu zioten, baina 80 urteetako materialtasuna gailendu zen. Heroína eta kokainaren** kontsumoaren hedatze eta areagotzea, alde batetik, eta **industria-birmoldaketa** eta honen errepresioak, bestetik, Espainiako modernizazioaren sorginkeria epikoa apurtzen amaitu zuten. Bere esentziari fidela izatearren, **garai honetako amaiera 14D horretan RTVEko langileek herrialde osoko telebistaren seinalea moztu zutenean jarriko dut,** Espainia ordu batzuetan zehar telebistarik gabe eta hamarkada askota zehar epika politikorik gabe geratu zenean.

Zer gertatu zen orduan? **Espainiako politika poterearen diskurtsoak, industria-birmoldaketa eta korrupzioaren iskanbilen** (Luís Roldán, Juan Guerra, FILESA eta abar) artean helduta, **ezin zituen bere sinesgarritasunaren oinarriak epikan edo poetikan bilatzen jarraitu**, horregatik, nahi ez bazuen ere, **errelatu teknokratikoetarantz** bideratu zen, **erresistentzia handiagoko oinarriak erregresiboki kantautoreen lirikara eta egi historikoaren dogmatikara lotzen ziren bitartean.**

Modu gogorrago batean, 90 mendeko potere politikoaren erretorika egiantzekotasun teknikotik eraiki zen, zenbaki konkretu eta botere ekonomiko handiko iturrien etengabeko erabileraren bidez. Kontraesanetan hain ahuldutako 1989 eta 1993 urteetako gobernuentzako, egiazkotasuna sortzeko mekanismorik egingarri bakarra, diskurtsoan autoritate transferentziak egitea izan zen. P. Bourdieuren terminología erabiltzearren, Europako edo Mundu mailako botere ekonomiko eta politikoen etengabeko aipamenak egiten zituzten (Maastrichteko ituna", "OCDEren datuak", "Europar Komisioa", "OTANa", "Mr. Pesk", eta abar). Neoliberalismo ekonomikoaren postulatu guztiak hedatzeko bidea prestatuta zegoen, erakunde publiko guztien aipu-galtzetik hasita (Telefónica, Campsa, Iberia, Renfre), ondoren pribatu bihurtzeko eta bere administrazio kontseiluen buru el Pilarreko Ikastetxeko mahaiko kideak jartzeko, CIUren ezinbesteko babesarekin. **Espainia zinismo eta espekulazioz gaixotu zen. Langileak erdi-maila bihurtu ziren eta autonomoak enpresaburu.** Espainiako ekonomian eta inguruko hainbat ekonomietan patologikoki injektatutako likideziak banku-sistema usteldu zuen. Zirkuak, orden hegemonikoari burlazko erantzun emateko gune bezala betirako desagertu ziren eta VIP palkuen futbolak aisialdiko podiumean lehenengo postuan betirako geratu zen.

Neurri batean, **ondorengo hamarkadek sinesgarritasun alderatze hau modu matizatuan erreproduzitu dute. "Espainia ondo doa" teknokratikotik "Europako bihotzera itzulera" epikora pasatu da.** Carlos Solchagaren berehala aberats bihurtzea hain erreza zen herrialde batetatik, J.L. Rodríguez Zapateroren "gure demokrazia aurreratuaren giza eskubide berrietara". **Ahuldutako egiazkotasunaren aldakuntzak eman ziren, kasu batzuetan, ate birakarien bitarteko zinismo errebelatuaren ondorio bezala eta besteetan, eskubide ekonomikoen eta justizia sozialarengan 2008ko finantza krisialdiak eragindako porrotaren emaitza bezala.** Ezer ez zen berdina izatera bueltatu.

Hamar urte baino gehiago pasa ondoren, demokrazioa egoki batek behar duen egiazkotasun maila sortzea gai den diskurtso marko bat birsortzetik oso urrun jarraitzen dugu. 2011n, sistemaren aipua galtzeak eta honen erretorikak, hain maila altuenera heldu zen non espainiako gehiengo sozialek herrialdeko historian inflexio puntu bat sortzea erabaki zuten, **"ez gaituzte ordezkatzen", "denak joan daitezela"** eta kataklismo handien bereizgarrien kargutik kentzeko formulak erabiliz. Hiru urte pasa behar izan ziren konbentzitze erretorika berria sortzeko, kasu honetan **jendea kastaren kontrako** epika inpugnatoriarekin, erasoa adostasunaren kontra. Baina egi-efektua sortzeko estrategia honen gaitasunak gutxi **iraun zuen, alderdien sistema gaixotu zen arte** eta **Mariano Rajoy** agonikoaren gobernu berriaren berrargitaraldia eman zenean.

2016tik aurrera, Espainiako politikaren erretorika estiloak epika, poetika edo teknokraziako edozein zirrikitu itxi dituzte, ***izendatze ekintzei*** pasu emateko. Hauek, **izendatzen duten guztia bataiatzea eta komunikabideen pultsio histerikoa asetzea** (geroz eta histrionikoak diren edukiak hedatuz, visita asko erakartzeko gai direnak, bere garrantzia alde batera utzita) **helburu duten lokuzio eta formula espresiboak dira.** "Feloia", "banda", "independentista eta terroristak", "kupoitzarra", "populista bolivarianoak", "koinatua", "Falcoiduna", eta abar. Estrategia honek ezin du funtzionatu lokatzez hain Beteta dagoen hau bezalako komunikazio esparru batean.

Eduki guztien (politikoak, kirolekoak, kulturalak, eta abar) antsietate eta hutsaltzeak menderatutako sistema mediatiko batean, konbentzitze erreminta nagusi bezala ***izendatze ekintzak* erabiltzeak, kargutik kentzeko krisialdi batera joan daiteke bakarrik, aurrekoa baino ideologikoagoa eta ideologizatua den batera.** Porrota bermatuta dago. Zergatik? Ez bakarrik errealitatea bataiatzeko asmoa dutenak izendatzeak efektua izateko behar den

botere kargua daukatelako. Baita ere, porrota garantizatuta dago izendatzearenganako leiaren eszenaratzea gehiengo sozialentzako hain garaiz kanpokoa eta harrigarria da. **Ikuskizuna geroz eta luzeagoa eta biziagoa izan, sinesgaitzagoa dirudi.**

Harritzen ez duen arren, baina bai larritu, hondamendi honetatik bizirik atera diren bakarrak, beraien berezko produktu espresiboen autodebaluazioa egin dutenak dira, marka propioa. José Bono edo Miguel Ángel Revilla bezalako pertsonaiek beraien egiazkotasuna krisialdiak suntsitzea lortu ez zuen baliabide bakoitzaren baitan eraiki zuten: ideolekto popularren elementu tipikoen erabileraren bidez bere espresatzeko moduaren debaluazioa, bai fonetikoa (José Bonoren hain ezaguna de *ej' que*) eta baita lekuko eremu semantikoei igortzea (*Revillu*cak, berak bere burua izendatzen duen moduan, antxoei buruz behin eta berriz hitz egiten duenean). P. Bourdieuren terminologiarekin jarraituz, hitz egiten eta entzuten dutenen arteko distantzien (edukaziozkoak, ekonomikoak, klase sozialenak) ukapenaren bitartez egi efektua sortzearen helburuarekin *moldatze estrategiak* behin eta berriz errepikatzen dituzte. *Sinistua eta obeditua izan behar naiz* zuk bezala hitz egite dudalako, zure gai ezberdinei buruz eta fonetika berdinarekin.

Erregimenak 40 urtetan zehar erabilitako konbentzitze erretoriken artean bizirik irautea lortu duen bakarra auto-debaluazioarena izateak, nire ustez, ondo adierazten du nola erregimena atzera bueltatzerik ez daukan deskonposaketa batean sartu den.

Hiritar eta politikaren arteko erlazioa

LABURPENA

JOSE MARÍA SAN SEGUNDO ENCINAR
ROSA GÓMEZ

Analisi eta ikerketa
—



Analisi eta Ikerketa aholkularitza enpresatik datozen José María San Segundo eta Rosa Gómezek, "Hiritar eta Politikaren arteko erlazioa" aurkezpenaren bidez, Gipuzkoako hiritarrek politikarekiko daukaten pertzepzioaren inguruko ikerketa aurkeztu zuten. Politika analisiaren alorrean ezarritako metodologia berritzaile baten bitartez, 15 hilabetetan zehar Gipuzkoako hiritarrek politikarekiko zeuzkaten iritzi, espresio eta jarrerak monitorizatu ziren. Horretarako, hiritar panel bat sortu zuten eta honetatik 26 gai, 4 inkesta eta 6.000 iruzkin baino gehiago lortu ziren. Ikerketaren bidez hiru ardatz (arrazionala, emozionala eta eragilea) eta bederatzi aldagaietan oinarritzen zen erlazio eredu bat sortu zuten eta honekin hiritarrek politikarekin daukaten erlazioari begira lau hiritar mota identifikatu ahal izan zituzten:

- **Inplikatutako gizartea,** epe luzeko ikuspuntu estrategiko eta kolektiboarekin eta ikuspuntu sozial gogorrarekin.
- **Zentratutako gizartea**, politikaz hitz egitea gustatzen zaiona, baina nagusiki bere gauzez eta bere intereseko gaiak maila taktikoan agenda politikoan egotea espero duen gizartea.
- **Egokitutako gizartea.** Hiritar honek politikan bozkaren bidez parte hartzen du, banakako interesengatik, epe laburrera eta maila taktikoan.
- **Loturarik gabeko gizartea.** Diskurtso oso kritiko eta estereotipatua daukalako erraz ezagutzen da.

Estatistika programek diotenez, Gipuzkoa oso antzeko dabil horietako 3 tipologietan (%20a bakoitzean) eta egokitutako gizartea %31a da, bozkatzen jarraitzen dute baina politikatik oso urrun sentitzen dira.

Oso pozik gaude hemen egoteaz eta 15 hilabetetan zehar proiektu honetan ikasitakoa zuekin partekatzeaz. Erabilitako metodologia azalduko dugu lehenik eta gero, herritarrek egun politikarekin daukaten erlazio moduari buruz hitz egingo dugu.

Analisi eta Ikerketan merkatu ikerketa ugari egiten ditugu baina ez ikerketa soziopolitiko asko. *Focus group* bat egitean, nik %98an badakit zer aterako den, interesatzen zaidana bakarrik %2 horretan ematen diren erantzunak dira. Normalean topikoetan mugitzen gara, politikoak lotsagabeko batzuk direla, bakarrik beraientzat lan egiten dutela... Eta bat batean, etorkizuna irakurri eta eraiki nahi duen erakunde bat aurkitzen duzu, Gipuzkoako Foru Aldundia. Ikerketa bat egin nahi dut, ez hauteskundeetan irabazi edo galduko dudan ezta zenbat diputatu aterako ditudan esan didana, baizik eta, etorkizunean politika nolakoa izan behar den esaten didana, herritarrei nola ulertu eta marko berri hori nola eraiki esaten didana.

Soziologikoki, gaur egungo egoera *inpasse* bezala defini genezake. Zahartzat hartzen ditugun gauza batzuk gainditzen saiatzen ari gara, baina ez gara gai haiengatik urruntzeko ezta berriak diren gauzei baina oraindik guztiz egiaztatuta ez dauden gauzak hartzeko. *Inpasse* egoera horrek kontraesankor izatera garamatza. Antonek bere hitzaldian esan du kontraesanetan eroriko direla eta normala da, herritarrak antza denez kontraesanetan erortzen dira.

Bat batean egoera honi argia ematera daraman prozesu bat aurrera eraman nahi duen erakunde bat agertzen da, herritarrekin politikaren konfigurazioa egitera daraman prozesu bat. Administrazio hurbilagoa, modernoagoa, hobeto lan egiten duena, balore gehiago erantsi egiten duen batean bilakatu nahi zen Gipuzkoako Foru Aldundia. Hori da mekanismoa.

Alfonso Uncetari ere eskerrak eman nahi nizkioke, ikertzaileek hainbeste behar dugun argitasun eta askatasuna batu egiten dituela.

Inkestak egiten ditugunean, jendeari generoa, adina, klase soziala eta horrelako ezaugarriak eskatzen dizkiogu eta gero pertsona hauek sailkatzen ditugu. Baina hau ez zaigu balio datuak interpretatzeko. Mekanismo horretan interpretazio egitura berri batzuk sortu nahi izan genituen. Orain esaten dugu: *herritar gazteak bai, baina politikari begira, nola.* **Erlazio marko hau ulertuta eta herritarrak sailkatuta bakarrik hartu dezakegu esku.** Erlazio politikak tipologiatan sailkatzen baditugu bakarrik hartu dezakegu esku. Gauza berririk aurkitu gabe, oraindik sakonago landu beharrekoa den marko baten ekarpena egiten dugu. Marko honek gauzak beste modu batean ulertzeko balio du, gauzak ulertu behar dituzuenei zergatik gertatzen ari diren eta nola hobetu laguntzen dizuena, Foru Aldundiaren apustuak zentzua izan dezan eta herritarrei lagun dezaten.

Hauek ziren kurtsoko zuzendariek markatu zizkiguten premisak:

• Herritarrek sistema politikoarekiko gaitzuste bat daukate, egia dena baina kontraesanekoa da, topiko asko dituelako. Gainera, irregularra da, desafekzioa ez delako taldeka homogeneoa.

• Herritarrek mekanismo politiko ezberdinekiko daukaten interesaren gorakada oso handia da baina oso sinbolikoa baita ere, guztiek parte-hartzeko mekanismoak nahi dituztelako baina gero ez dakigu non parte hartzen duten.

• Jarrera eta portaera ulertzeko zailtasuna.

Orduan, handik aurrera, bi helburu nagusi dituen ikerketa garatu dugu:

• Alde batetik, herritarrek politikarekin daukaten erlazioa ulertzea, haien artean dagoen tartea murrizteko eta politika publikoen legitimazioa orientatzea eta komunikazioa hobetzea. Erlazioak nola sortzen diren ulertzen badugu, hurbilago egongo gara, esfortzu publikoa legitimatuko dugu, komunikazioa hobetuko dugu, herritarrengatik gehiago egin dugu eta errealitatearen interpretazioaren marko berri bat sortuko dugu.

• Bestetik, errealitatearen interpretazioaren marko berri bat sortzea. Esleipen politikoaren kategorizazio batetik, jarreren esleipenaren kategorizazio batera pasa nahi genuen. Guk galdetegiak bozka intentzioagatik edo aldagai sozioekonomikoengatik sailkatzen ditugu. Oraingoan, jarreragatik ulertu nahi genituen galdetegiak baita ere, hau zen gure erronka. Nola ulertu galdetegiak sakoneko jarrerei begira? Generoaren gaiari, segurtasunari edota lan munduari buruz hitz egingo dugula esatea ondo dago, baina nola ulertzen da honekiko jarrera? Hau zen guk geneukan erronka.

Zailtasun ugari genituen, horien artean:

Herritarren erlazioa politikarekiko urrutasunetik kontrolatuta dago eta topiko artean eta iritzi eta jarrera aldaketa artean mugitzen da, askotan interpretatzeko gai ez garenetan. Behin batek apustu bat galdu nuela esan zidan. Bai, egia da, inkestak egiten direnean, oin azpian harea mugitzen delaren sentsazioa daukatelako. %3a mugitzea, guztiz huts egitea da, guztiz apurtzen dizu. Eskuina lideratzeko CIUDADANOSen apustuak bozken antolaketaren panorama guztiz aldatzen du. Berez, edozein mugimenduk ondorio batzuk ditu beti. Noizean behin, inkestaren bat egiten dugunean "baina zer gertatu da?" galdetzen diogu gure buruari, uler dezakegu zer gertatu den baina ez nola gertatu den, hau da, zer dago ulertu ezin dudan aldaketa honen atzean.

Ikerketek pertzepzioak non dauden jakiteko balio dute baina ezin dugu jakin nola eraikitzen diren jarrerak. Ondorioz, badakigu non dauden torlojuak baina ez daukagu hauek mugitzeko giltza, hau da, badakigu zer gertatzen ari den baina ez dakigu zergatik, eta hau oso frustragarria da. Beraz, hemen, gauzak nola dauden neurtzeaz gain, arazoak nola konpondu aztertzen saiatu gara. Izan ere, ez dugu inoiz galdetu jendearen bozka, hori ez zitzaigun interesatzen.

Normalean gizarteak jada gainditu dituen erantzun kategoria batengatik galdetzen dugu. Guk, soziologian, eta lanbide honen ordezkari umil bat bezala esaten dut, askotan atzetik goaz, nahi dugunaz galdetzen dugu, ez beraiek esaten dutenaz eta gainera, gure modura esaten dugu, ez beraiek ulertzen duten erara. Ondorioz, ez gara ulertzen. Metodologia klasikoek ikerketa dinamika murrizten dute eta helburuen lorpena zailtzen dute. Honako egoeran, adibidez: nik Focus Group bat egiten badut eta metodologia kualitatiboaren bidez teknikari bat jartzen badut bi orduz gai zehatz batzuei hitz egiten duten zortzi pertsona moderatzen, teknikariak berak galderak egiten ditu, moderatzen saiatzen bada ere. Politikaz horrelako talde batean hitz egiten dugunean, jende guztiak esaten du Focus Groupa amaitzean berotzen hasten direla. Baina txarragoa da hiru ordutakoa egitea, zeren eta hirugarren orduan bero daudelako jada eta orduan alde egin nahi ez dutela diote. Orduan, denbora luzatu ezin zenez, beste gauza gehigarri bat egitea erabaki genuen.

Hiritarrek politikarekin daukaten erlazioa ikertzeko betiko tekniken eskaintzen ez duten analisi denbora eta ikuspuntu orokor bat behar da.

Beraz, esperientzia honetatik **Herritarren Panel bat eratzea, "Behaketa, Partaidetza eta Esku-Hartzea"** izenarekin, komunitate birtualen bidez landua, hitzak, irudiak eta momentuak ulertu behar genituelako. Eta hau bakarrik komunitate birtualek eskaintzen dizkiguten aukeren bidez egin genezakeen.

15 hilabetez iritziak eman, trukatu eta batera lan egin duen komunitate birtual batean "sartutako" panela. Honi esker ikusi, ulertu eta ikasi ahal izan dugu.

Zertan oinarritzen dira komunitate birtualak, zeintzuk dira honen printzipioak?

• Antropologian oinarritzen dira. Mesedez, apriorismoak ahaztu eta behatzera mugatu. Behatu, ez egin analisirik.

• Parte-hartze integral bat egon behar da, non balorazioak, argazkiak, bideoak eta abar sartzen diren. Gazteen diskurtsoa, orala izatetik irudien bidezkoa izatera pasatzen delako. Ez badugu kontuan hartzen irudien bidezko diskurtso hori, nola ulertuko gara?

• Jarreren analisi sakonean oinarritzen dira. Oinarrizko jarrerak ulertu nahi ditugu, panelista bakoitzaren intimitatea jasoz.

• Parte-hartze psikosoziala. Panel bat izan dugu eta honen prozesuetan parte-hartu nahi izan dugu, nola erreakzionatzen zutenari buruz informazioa eman, nolako jarrera zuten ikusteko mezuak sartu, hitz batez, haien jarreretan esku hartu.

Aurreko lau puntuek errealitatearen ulermena eta denboran eboluzio eta erantzun agertokiak definitzeko aukera bermatzen dute.

Azken finean, **komunitate birtualek abantaila asko eskaintzen dizkigute:**

• **Ikerketaren denbora luzatu**. Hilabeteetan zehar egiten den ikerketa batek helburu multzo bati aurre egitea baimentzen du eta helburuak jakiten goazenarenera adosten ditugu.

• **Ikuspegi antropologiko** batek parte-hartzaileekin batera errealitatea bizitzeko aukera ematen dit, beraiekin laborategi bat izateko aukera ematen dit, beraien jarrera konfiguratu.

• **Ikerketa batek egoeraren argazki bat egitea baimentzen dizu** baina ez dizu egoera ulertzen uzten, hemen, aldiz, beraien bizitza beraiekin eraiki dugu.

• **Ikuspuntu esperimental bat ezarri** dugu, erlazio-erantzun ereduak sortu ahal izateko.

• **Analisia herritarrekin partekatu** dugu, haiek izan baitira besteek esaten zutena baloratu dutenak, ulertzera lagundu digutenak eta noski, gauzak nola aldatu daitezkeen ikustea baimendu digu ikerketa honek. Bildutako informazioari begira, ondorengoen analisia integratu dezakegu:

. Emozioak
. Balorazioak - partaidetza o Irudiak
. Jarrerak
. Eta abar

• **Aurrerakuntza estrategikoa.** Iraupena, erabilitako euskarriak eta partaidetza ikuspegiak errealitate baten diagnostikoa egitea baimentzen dute eta baita aurrera egitea eta etor daitezkeen aldaketak aurreikustea:

. Nola saihestu ditzakegu orain ditugun arazoak?
. Nola egin ditzakegu gogobetegarri erlazio mekanismoak?
. Nola kapitalizatu ditzakegu hobekuntzak?

Hau izan da metodologia emaitzengatik aldatu nahi izan duen prozesu baten ibilbidea. Metodologian ausarta eta berritzailea izan

behar da, ondorioetan ausarta eta berritzailea izateko, azkenik herritarren praxietan ausarta eta berritzailea izan ahal izateko.

Komunitate birtualek gune oso berezi batean sartzen gaituzte eta gainera, bagaude Interneten eta sare sozialen munduan sartuta. Honek norbera nahi duena izatea, bakoitzaren dinamikarekin eta norberaren estiloarekin baimendu digu eta baita besteekin komunikatzeko, ikertzeko, errealizatzeko aukera eman digu. Haiek protagonista direlako eta horrela sentitzen direlako, izan ere, haiek izan dira gure ikerketaren parte-hartzaileak.

Ikerketarako pertsonak ezaugarri soziodemografikoengatik aukeratuak izan ziren eta baita, beraiek komunikatzeko gaitasuna kontuan hartu genuen, informazio asko ematen ziguten pertsonak behar genituelako. Gainera, ikerketak irauten zuen denbora guztian zehar libre egotera konprometitu behar izan ziren. 15 hilabete hauetan zehar, proiektuaren parte izan direla sentitu dute eta hau parte-hartu duten 50 pertsonekin ikusi ahal izan dugu. Bitxikeria bezala, 15 hilabete hauen ostean, parte-hartzaileek ez zutela prozesua bukatu nahi esaten zuten. Eta hau mezu oso garrantzitsua da politikarentzat, entzuna izatearen garrantzia, zuk esaten duzunari norbaitek garrantzia ematea.

Erabilitako erreminta Sensor Panel deiturikoa da. Hau kanal ugariko online erreminta bat da, bakarkako zein taldeko metodoak konbinatzen dituena. Nola funtzionatzen du?

Guk 50 parte hartzaileak dauden Foroa asko erabiltzen dugu, hauek elkar-eragiten duten lekua da eta guk galderak botatzen dizkiegu. Jose Maríak aurretik aipatu duen moduan, ez ditugu galdera zehatzak eta politikarekin erlazioa dutenak egiten, baizik eta gai orokorrei buruzkoak, beraiek hitz egiteko eta modu libre batean beraien iritziak komentatzeko.

Bestalde, **Egunerokoa** bat dago baita ere, atal indibiduala dena. Hemen, parte-hartzaileak gurekin jarri daitezke kontaktuan, beste partaideek ez dituzte ikusten. Egunerokoa intimitate espazio bat da eta parte-hartzaileek ere beste modu batean hausnartzen dute. Hemen haiek Gipuzkoa nola ikusten dute definitzen duten lau argazki aurki daitezke eta hauek ondorengoa irudikatzen dute:

- Aldatzen hasi den gizarte bat.
- Bere tradizioak galdu nahi ez dituen gizarte bat.
- Eskutik heltzen den gizarte bat.
- Etorkizunera begiratzen duen gizarte bat.

Gipuzkoa nola ikusten duten azaltzen saiatzen diren lau argazki.

Blog-ak ditugu baita ere, **komunitate osoarentzako esplorazio gune irekia: beraiei interesatzen zaizkien gauzei buruz hitz egiteko**. Parte-hartzaile bakoitzak blog bat zabaltzen zuen eta bere hirian edo inguruan bizi zenaz, bertan zeuden arazoez...idazten zuen. Hau beste parte-hartzaileekin partekatzen zuen eta horrela, komunikazio dinamika bat sortzen zen.

Lehenengo momentutik, parte-hartzaileen artean dinamika oso positiboak sortu ziren. Oso ideia ezberdinak zeuden eta besteen iritziak eta ikuspuntuak asko errespetatzen ziren. Material ugari bidali dizkigute: argazkiak, bideoak, estekak... Blog honetan ikusi eta entzun daiteke guzti hau. Hausnarketa momentu bat da oraingoa, sare sozialak beste modu batean bizitzeko momentua. Hemen ez gaude Instagramen ezta Facebooken. Gainera, hizkuntza aldetik malgutasuna egon da, batzuk euskaraz hitz egiten zuten eta beste batzuk gaztelaniaz. Dena oso ondo joan zen. Dena, informazioa, erlazionatzeko modua, modu espontaneoan sortzen zen eta denak oso ondo funtzionatu du. Parte-hartzaileek ez dute ekintza guztiei erantzuna emateko, bere kideen erantzunen jarraipena egiteko eta norberaren bizipenak partekatzeko arazorik izan.

Ikerketaren prozesuaren laburpena.

- 15 hilabete lanean, 26 gai landuta, 4 inkesta eta 6.000 iruzkin baino gehiago (*verbatim*).

Gure helburua esaten zutena ulertzea, haien atzetik dauden jarrerak ezagutzea, politikarekin daukaten erlazioaren markoa egitea, zein tipologia agertzen zen ikustea, jarrera horien arabera zein nolako hiritarrak ditugun jakitea eta etorkizunera begira honekin zer egin dezakegun hausnartzea zen. Nahi duguna, etorkizuneko egoera politikoa ulertzeko tresna bat sortzea da. Horretarako, gai bakoitzeko tipologiak nola antolatzen diren jakin behar genuen. Tipologia hauek ez dute desberdintasun handirik sortzen aldagai sozio-ekonomiko klasikoei begira, baina bai gaiekiko.

Erlazio ereduen analisiaren emaitza nagusiak:

Herritarren eta politikaren erlazioan jarrerarekiko hiru ardatz identifikatu dira:

- **Arrazoizko ardatza: pentsatu.** Politika nola ulertzen da. Nola ulertzen dut nik politika. Hiritar bakoitzak politika modu ezberdin batean ulertzen du.

- **Emoziozko ardatza: sentitu.** Politika nola bizitzen da. "Ni" politikoa. Pertsona guztiek politika modu ezberdin batean bizitzen dute.

- **Ardatz eraginkorra: egin.** Politika nola praktikatzen da. Nire erlazioa politikarekiko. Politikaren praktikaren modu ezberdinak ikusten ditugu.

Banaka azalduko ditugu.

- **ARRAZOIZKO ARDATZA:** pentsatu. Ardatz honetan sartzen diren aldagaiak honako hauek dira: gogoeta, lotura eta ekarpena.

. **Gogoeta**, norberak politika ulertzeko daukan modua bezala ulertu dugu. Batzuk, politikaren irakurketa holistikoa egiten dute, leku guztietan ikusten dute politika. Beste batzuk, aldiz, ikuspuntu erredukzionista daukate, hauen ustez, politika alderdi, pertsona eta bozketara murrizten da.
. Bestalde, **lotura** bezala, herritarraren eta politikaren arteko erlazioa ikusten dugu. Hau berekoa edo kanpokoa izan daiteke. Berekoa bada, "ni"-a eta "politika"-ren artean konexio handia dago eta sinbiosia ematen da. Kanpokoa bada, aldiz, "ni"-a eta "politika"-ren artean ez dago nolabaiteko erlaziorik.

. Azkenik, **ekarpenari** buruz hitz egiten dugunean, politikak gizarteari balore publiko bat ematen diola esaten dugu. Honi begira, pertsona batzuk erabilgarritasunaren ardatzean kokatzen dira, gizartearentzat nahitaezkoa dela eta gizarteari balio erantsi bat ematen diola uste dute. Kontrako aldean, berriz, gizartearentzat erabilgarria ez dela uste dutenak daude.

- **EMOZIOZKO ARDATZA:** sentitu. Ardatz hau ere hiru aldagaik osatzen dute: segurtasuna, kultura eta konfiantza.

. Segurtasuna, norbanakoak politikaren bidez gizartean eragina izateko gai dela uste duen gradua da. Batzuk politika aldatzeko eragin handia daukatela uste dute eta beste batzuk, aldiz, gizartea aldatzeko eraginik ez daukatela pentsatzen dute.

. Kultura arauak ezagutzea da, nola konfiguratzen diren... Alde batetik kultura politiko sakona aurkitu dugu, ezagutza maila altua eta analisi politikorako gaitasun handia daukaten pertsonak. Bestetik, azaleko kultura daukatenak topatu ditugu, analisi politikorako gaitasun oso baxua daukatenak.

. Konfiantza denboran zehar itxaropenen betetzearen ondoriozko adierazpena da. Alde batetik, politikarekiko konfiantza maila altuak aurkitzen ditugu, politika guztien ongizateaz arduratzen dela eta orokorrean jarduera zintzoa dela uste da. Bestetik, mesfidantza ere aurkitzen dugu, gardentasunik gabeko ekintza bezala ikusten da eta norbanakoaren gaiez arduratzen dela uste da.

• **ARDATZ ERAGINKORRA:** egin. Ardatz honetan aurki ditzakegun hiru ardatzak kontsumoa, konpromisoa eta konstantzia dira.

. **Kontsumoa**, herritarrek gai publikoei buruz informazio eta jarraipena egiteko daukaten interesa da. Herritar batzuk gai publikoez informatuta egon nahi dute eta kanal ezberdinetatik lortzen dute informazioa. Beste batzuk, aldiz, pasiboagoak dira eta ez dute informazioa bilatzen, heltzen zaienarengandik daude informatuta.

. **Konpromisoa**, norbanakoak jarduera politikoetan daukan partaidetza da. Honen barruan ere, bi jarrera mota daude, konpromiso sendoa (afiliazio politikoa) eta konpromiso ahula.

. **Konstantzia** politikarekiko erlazioan iraunkortasuna izatea da. Alde batetik, konstantzia egonkorra dago, aurreikusi daitekeen portaera daukaten pertsonak dira. Bestalde, konstantzia aldakorra dauden pertsonak ditugu, gertakari zehatzen araberakoak direnak eta aurreikusi ezin den jokabide- eredua daukatenak.

Azkenean, portaeraren hiru ardatz klasikoak aukeratu ditugu: arrazionala, emozionala eta eraginkorra. Hau da, batek pentsatzen duena, sentitzen duena eta egiten duena.

Bigarrenik, aldagaiak izenekin identifikatzeari ekin diogu: ulermen politikoa (kontsiderazioa – *consideración*), lotura politikoa (konexioa – *conexión*), inpaktu politikoa (ekarpena – *contribución*), nire eragin politikoa (seguru egotea – *convicción*), nire jakintza politikoa (kultura – *cultura*), politikan daukadan segurtasuna (konfiantza – *confianza*), nire iniziatiba politikoa (kontsumoa – *consumo*), ekarpena politikan (konpromisoa – *compromiso*) eta jarraipen politikoa (konstantzia – *constancia*).

Hau izango litzateke prozesuaren laburpena.

—
1. Irudia.
Erlazio ereduak



Ikuspuntu hau kontuan hartuta, politikari buruz hitz egiten dugunean, zaila da orokortzea, aldagai ezberdinak daudela ikusten dugulako: norberakoa nola sentitzen, ulertzen eta bizitzen duen politika eta politikarekin nolako jarrera duen eragiten dutenak. Hemendik aurrera paneleko parte-hartzaileak deskribatzen dituzten tipologia ezberdinak sortu dira. Lau tipologia mota ditugu:

• **Inplikatutako gizartea**k herritar politikoa ordezkatzen du. Politikari buruz hitz egitea gustatzen zaio, politikarekiko pasiozko jarrera bat mantentzen du. Politikaz hitz egitean ikuspuntu optimista dauka, mota askotariko gauzengatik asko mugitzen da. Epe luzerako, estrategikoa eta taldeko ikuspuntua dauka eta baita ikuspuntu sozial gogorra ere. Interes "idealen" defentsak interes pertsonalak gainditzen ditu. Itxaropen politiko altuak ditu, oso zorrotza da eta politikari begira, asetzeko zaila.

• **Zentratutako gizartea**k herritar selektiboa ordezkatzen du. Politikaz hitz egitea gustatzen zaio, baina berari interesatzen zaizkion gaiez bakarrik. Bere intereseko gaiak agenda politikoan maila taktiko batean agertzea nahi du eta oso adi dago bere intereseko gaiez hartzen diren erabakietara. Interes indibidualak interes soziala gainditzen du. Itxaropen eta eskaera politiko altuak ditu. Oso zorrotza da bere intereseko gaietan.

• **Egokitutako gizartea**k herritar erritualista ordezkatzen du. Politikan bakarrik bozkaren bidez parte-hartzen du, betebehar bat bezala ikusten du. Hauteskunde momentuetan bakarrik pizten da. Jarrera politikoa alderdi politikoetan delegatzen du, ez da politikaren erantzule sentitzen. Kausa indibidualengatik mugitzen da, epe laburrera eta maila taktikoan. Hauteskundeak hurbiltzen direnean, politika-balantzea egiten du, harmen eta sentsibilitate momentu handienak dira hauek. Beste momentuetan politikatik aldenduta mantentzen da. Bere politikaren itxaropenak moderatuak dira eta egoeraren araberako eskatzailea da.

• **Loturarik gabeko gizartea**k kontrako herritarra ordezkatzen du. Diskurtso oso kritikoa eta estereotipatua dauka, era oso pesimistan eratua: "gauzak ez dira inoiz aldatzen", "ez gaituzte entzuten", "denak dira berdinak"... Ez ditu erantzukizun politikoak bere egiten. Ekintza politikoetan parte-hartu dezake ala ez, baina beti etsipen, desilusio eta haserre jarrerarekin. Politikaren itxaropen gutxi ditu. Asko eskatzen dio politikari zentzu ezberdinetan baina beti kexa hutsetik, aurrera ez doan kexa horretatik.

Lan hau 50 pertsonekin egin dugu 15 hilabetetan zehar. Orduan, pentsatzen dugu: hau egia izango da gizartean? Tipologia hauek zentzua daukate gizartean? Honek balio al du ikerketa handi bat egiteko?

Beraz, esan genuen, lehenik, tipologia hauen segmentazio bat egin behar dugu, alde batetik, edozein ingurutan estatistikoki errepikatu ahal izateko eta bestetik, edozein fenomeno politiko ulertzera egokitu ahal izateko. Lau tipologia ditugu, baina bakoitzean zenbat pertsona dauden jakin nahi dugu. Ondorengo irudian ikusi dezakezue hau:

—
2. Irudia.
Inkestatutako pertsonen sailkapena tipologien arabera.



Iturria. Analisi eta Ikerketa

Programa estatistikoek diotenez, 20%aren inguruan mugitzen diren hiru tipologia ditugu eta %31n mugitzen den beste bat, egokitua. Beraz, lehenengo poztasuna, tipologiek funtzionatzen dute. Bigarrena, sailkapena egokia da, ez dago tipologia nulurik. Hirugarrena, sailkatzea ezinezkoa egiten zaigun hiritarren portzentaia %2,6koa da bakarrik. Goiko irudiko laginak 1000 pertsona irudikatzen ditu, beraz, estatistikoki esanguratsua da.

Tipologia hauek berdinak al dira Gipuzkoako herri guztietan? Ez. Goiko irudia Gipuzkoako tipologiak dira. Inplikatutako eta egokitutako hiritarra agertzen zaigu, erritualista eta politikoki arduraduna eta ezin dugu gehiago aldentzen utzi, bozkarekin konpromisoa mantentzen duelako, bozkaren ardura basikoa.

Hemendik aurrera, elkarrekikotasun analisi faktorial baten bidez herritarren ezaugarriak tipologietara lotzen saiatzen gara. Ikusten dugunez, Inplikatutako herritarrak ziurtasun ezari, pentsioei edo justiziari buruz hitz egiten digu. Zentratutako herritarrak, aldiz, inmigrazioari edota ingurumenari buruz. Egokitutakoak hezkuntza eta generoaren inguruan hitz egiten du eta azkenik, loturarik gabeko herritarrak, bakeari buruz. Azkenengo hau politikatik kanpo dago. Beheko irudian ikusi dezakezu honako hau.



Iturria. Analisi eta Ikerketa

Tipologia hauek beste eremu askotara eraman ahal izateko mekanismo bat sortu dugu eta horrela, jarduera politikoa eta herritartasunera hurbiltzeko era hobetuko ditugu eta administrazioaren lana balioan jarriko dugu. Eskerrik asko hau posible egiteagatik.

ETORKIZUNA **ERAIKIZ**

Kultura Politiko Berriaren adierazpena

LABURPENA

XABIER BARANDIARAN

Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren aholkularia
Gipuzkoako Foru Aldundia

Xabier Barandiaran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren aholkulariak, *Etorkizuna Eraikiz: Kultura Politiko Berriaren Adierazpena* aurkezten du. Bere esku-hartzea, Etorkizuna Eraikiz izeneko Gipuzkoako gobernantzaren ereduaren konfigurazio, inplementazio eta bilakaera-prozesua partekatzean datza.

Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako konpromiso instituzionalean oinarritutako esperientzia bat da, hain zuzen ere, politika publikoen hausnarketan eta lantze estrategikoan eragile sozial ezberdinen parte-hartzea posible egiten duen eredua. Horretarako, eztabaida eta eragin politikorako espazioak sortu dira. Eredu hau funtsezko hiru alderditan oinarritzen da: *etorkizuneko agenda, gizartearekiko lankidetza eta indartze demokratikoarekin konpromisoa.*

Gobernantza eredu honen inplementazio-prozesuko ikaskuntzen artean, lehenik eta behin, *lidergo partekatu* bat eraikitzea dago eta bigarrenik, legitimazio-iturri gisa *entzute prozesuak* sortzea. Bi elementu hauek kultura politiko berri bat eraikitzeko erabakigarriak dira.

Nire hitzaldia Etorkizuna Eraikiz izeneko Gipuzkoak sortutako gobernantza-ereduaren konfigurazio, inplementazio eta bilakaera-prozesuan oinarritu nahi nuke.

Horretarako, politika, beste jarduera eta erakunde batzuk bezala, aldaketaren inpaktuak jasotzen dituela azpimarratzen hasiko naiz. Honako arazo hauen konponbideak lurralde- mugetatik haratago doaz: herritarren mesfidantza, alderdi politiko sistemaren gainbehera, administrazio-egitura zurrunak eta ez-eraginkorrak eta gizarte-behar eta -eskarien gainbehera.

Testuinguru honetan, gizarte-errealitatearen beste eremu batzuetan gertatzen den bezala (kultura, hezkuntza, osasuna, ekonomia, etab.), esparru politikoa, herritarren eta eremu politikoaren (ordezkariak, alderdi politikoak, gobernu-egiturak, administrazio-tresnak eta abar) arteko harreman-eredu berriak ezartzeko diseinatutako berrikuntza-prozesuak garatzen dituen eremu espezifikoa da. Gipuzkoan, politikaren berrikuntza gobernantza ireki eta lankidetzakoaren eredu baten eskutik etorri da, Etorkizuna Eraikiz.

ETORKIZUNA ERAIKIZ, GOBERNANTZA EREDU BERRIA GIPUZKOAN

Etorkizuna Eraikiz ereduak Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) 2015-2019 legealdirako sortutako Kudeaketa Plan Estrategikoan du jatorria. Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plana Foru Aldundiaren ekintza bideratzeko tresna nagusiak dira.

Plan horren baitan, Etorkizuna Eraikiz legealdiko Proiektu Estrategikoetako bat da: "Gobernantza ireki eta lankidetzakoaren eredu berri bat eraikitzea". Beraz, Etorkizuna Eraikiz, eragile politiko baten ekimenez jarri da abian, Gipuzkoako Foru Aldundia, Foru Aldundiaren eta gipuzkoar gizartearen arteko harremanetarako prozedura berritzaile bat planteatzeko.

Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako konpromiso instituzionalean oinarritutako esperientzia bat da, politika publikoen hausnarketan eta lantze estrategikoan eragile sozial ezberdinen parte hartzea ahalbidetu eta eraginkor bihurtzen dituena. Horretarako, gogoeta eta eragin politikorako espazioak sortzen ditu, hausnarketa horrek agenda politikoan eta lurraldearen aurrerapen estrategikoetan adierazpena izan dezan.

Politika publikoen konfigurazioari dagokionez, helburua gizarte-eragileen parte-hartzea ahalbidetzea da, politika horiek identifikatzeko, esperimentatzeko eta diseinatzeko faseetan. Eta, era berean, eragile hauek nola elkarreragingo duten zehaztea (inguru eta formatuak). Hau da, antolaketa-eredu bat eraikitzea. Gai politikoetan, garrantzitsuena deliberazio espazio anitzak sortzea da, partaidetza-formatuak konbinatuz. Bitarteko politikoak sortzean datza, politika arduradunen eta herritarren arteko lokailuak direnak. Asmoa, ezagutza oso desberdinak dituzten eragile eta sistemek elkarreragin ahal izateko espazioak sortzea da. Eredu honetan, gobernuaren babesa garrantzitsua da. Ezinbestekoa da, baita ere, politika eta ekimen hauen inguruan eta hauen garapenean eta politika publikoen irudikapenean alderdi politikoen ikuspegia gainditzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Etorkizuna Eraikiz diseinatzerakoan, Gipuzkoako lurraldearen ezaugarrietan oinarritu zen:

• Lurralde-oreka. Baliabide eta azpiegitura sozioekonomikoei dagokienez, Gipuzkoa eskualde oso dinamiko eta aurreratuez osatutako lurraldea da.

• Elkarte-sare trinkoa. Lurraldean dagoen partaidetza eta truke gaitasunaren eta kulturaren erakusgarri da.

• Gizarte-ekimena. Oso garatuta dago lurraldean, eta haren adierazpen historiko garrantzitsuenetako bat mugimendu kooperatiboa da. Ekimen honek gaur egun oraindik arlo kultural, sozial eta ekonomikoetan aditzera ematen jarraitzen du.

• Kultura komunitarioa. Gipuzkoan, herritarren arteko lankidetza eta erronkei elkarren artean aurre egiteko eta hauek konpontzeko gaitasun jarrera eta esperientzia nahiko zabalduak ezagutzen dira.

• Kapital soziala. Ondo prestatutako biztanleria, heziketa maila altukoa da eta antolatzeko eta harremanak izateko gaitasunak dauzka. Gainera, Gipuzkoako tamainak hurbiltasun-harremanak errazten ditu.

• Bizikidetzaren berreskuratzea. Indarkeriazko lau hamarkadako etaparen behin betiko amaitzeak gure bizikidetzaren ondorio suntsitzaileak atzean uzteko aukera ematen digu. Gure gizartearen pluralitatea eta giza eskubideen adostasunaren handiagotze progresiboa eta elkar ulertze politikoak, lurraldearen agenda politikoaren modernizatzea eta berritzea eragiten dute.

Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak diseinatu eta bultzatutako Etorkizuna Eraikiz eredua funtsezko hiru alderditan oinarritzen da: *etorkizuneko agenda, gizartearekiko lankidetza eta indartze demokratikoarekin konpromisoa.*

Etorkizuneko agendak Gipuzkoako Foru Aldundiak etorkizunari aurrea hartzeko duen konpromisoa definitzen du, lurraldearen garapenerako funtsezko elementu gisa. Etorkizuneko agenda herritarrekin batera identifikatzea da helburu, Gipuzkoako gizarte osoarentzat garrantzitsuenak diren erronkei lehentasuna emanez, hauek proiektu bihurtuz eta martxan jartzeko elkarlanean arituz.

Bestalde, **gizartearekin lankidetzan** aritzeko, garatzen diren proiektu bakoitzeko gizarte-eragile desberdinak lan-taldean sartu behar dira, lankidetza publiko-pribatua sustatuz eta unibertsitateekin batera ezagutza sortuz. Asmoa, politika publikoetan proposatutako zenbait emaitza inplementatu eta Gipuzkoako agenda nazioarteko eragileekin kontrastatzean datza.

Azkenik, **indartze demokratikoarekiko konpromisoak** Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromiso politikoa bermatzea bilatzen du, lidergo partekatua erraztuz, gizarteari ekintza eta emaitza guztien berri emanez eta politikarien eta herritarren artean ikasteko eta trukatzeko guneak sortuz.

Laburbilduz, Etorkizuna Eraikizen asmoa Gipuzkoako etorkizuneko erronkak kolektiboki detektatzea, horiei aurre egiteko modua diseinatzea, hainbat eragileen lankidetzarekin benetako inguruneetan erantzun posibleak esperimentatzea eta emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan aplikatzea da.

Asmo hori betetzeko, Etorkizuna Eraikiz Gobernantza ireki eta lankidetzazkoaren nozioaren bidez garatzen da. Gobernantza ireki eta lankidetzazkoa politika egiten den lekuetako batetik (gobernua) planteatzen den erantzun espezifikoa da, eta funtsean gobernuen eta gizarte zibilaren arteko komunikazio- eta lankidetza-modu berriak ezartzean oinarritzen da. Gobernantza-eredu horrek gobernantza-prozesu publiko zein pribatuetan interesa duten alderdiak

integratzen dituzten mekanismoak eta egiturak biltzen ditu, modu definitu eta espezifikoan.

Lankidetzazko gobernantzaren esperientzia, interpretazio eta aplikazio asko daude munduan. Horien artean antzekotasun eta desberdintasunak daude, baina, guztiak gobernuen eta gizarte zibilaren arteko harremanetarako eta lankidetzarako modu berriak ezartzean oinarritzen dira. Europako testuinguruan, hierarkiarik gabeko deliberazio eta erabaki hartze esperientziak dituzten agentzia edota laborategietatik sortutako esperientziak aurki ditzakegu.

Esperientzia horietako bakoitzak funtzionamendu-eredu desberdin bat dauka. Batzuk "push" estrategietan (erabakiak hartzera bideratuak) zentratuago daude eta beste batzuk, aldiz, "pull" estrategietan (deliberaziora bideratuak) edo, zenbaitetan, biak konbinatzen dira. Ikus dezagun jarraian, Etorkizuna Eraikizek hartutako eredua.

ETORKIZUNA ERAIKIZ, EREDUA ETA ARKITEKTURA

Etorkizuna eraikiz programak lau helburu espezifiko ditu: etorkizuneko erronkak identifikatzea, agenda publikoa kolektiboki eraikitzea, politika publikoen diseinuan eta esperimentazioan lankidetzan aritzea eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraldaketa bultzatzea.

Helburu horiek lortzeko, Etorkizuna Eraikiz eredua hainbat osagaitan oinarritzen da. Osagai horiek modu artikulatuan eta elkarrekin lotuta funtzionatzeko pentsatuta daude. Hauek dira:

- Bi gune handi: **Gipuzkoa Taldean** eta **Gipuzkoa Lab.**
- Zeharkako hiru ildo: **Ikerketa, Nazioartekotzea** eta **Zabalkundea.**
- Lotura-organo bat: **Proiektuen Bulegoa.**
- Hiru euskarri-prozesu: **Kudeaketa, Sozializazioa** eta **Komunikazioa.**

—
1. grafikoa
Etorkizuna Eraikiz ereduaren osagaiak

Iturria. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2019

Jarraian, labur-labur osagai horietako bakoitza zertan datzan azalduko dut.

GIPUZKOA TALDEAN

Herritarren eta gizarte-erakundeen partaidetzarako proposamen eta deliberazio gunea da. Asmoa, Gipuzkoako gizartearen ordezkaritza onena eta zabalena lortzea da. Ez da soilik leku fisiko bat, baizik eta lurraldearen etorkizunerako gakotzat jotzen diren ideiak eta proiektuak identifikatzeko eta proposatzeko lekuen batura.

Orain arte, gizarteari entzutea, eztabaidatzea eta ideiak sortzea bultzatzeko hiru mekanismo nagusi sustatu eta garatu dira: Think-Tankak, Hiritarren Proiektuak eta Aurrekontu Irekiak. *Think-Tank*ak hausnarketa-talde desberdinek osatzen dituzte, ideiak trukatzeko eta Gipuzkoako etorkizunerako ekimenak eta erronkak identifikatu eta proposatzeko biltzen direnak. Testuinguru honetan, Gipuzkoako Think-Tanka beste Think-Tanken jardueraren ardatza da. Bere azterketa-, deliberazio- eta proposamen-jarduera egiten du, eta, aldi berean, gainerako hausnarketa-taldeei koherentzia emateaz eta integratzeaz arduratzen da.

Talde hauen funtzionamendu-dinamikak bilera presentzialak eta lan espazio birtualak konbinatzen ditu. Lantaldeen osaera, eratu nahi den Think-Tank motaren araberakoa izango da. Honako hauek har dezakete parte, besteak beste: Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak, proposatutako hausnarketa-eremuaren arabera hautatutako pertsonak, lurralde-eremuaren arabera hautatutako pertsonak –Udal-, eskualde-, probintzia-eremuak –, etab. Think-Tank delakoek Etorkizuna Eraikizen duten zeregina, ezagutza eta ikaskuntza sortzea, lurraldearentzako erronkak identifikatzea eta identifikatutako erronkei aurre egiteko proiektuen ideiak edo iradokizunak proposatzea da.

Bestalde, *Hiritarren Proiektuek* oinarrizko proiektuak planteatzea dute helburu, eta, hala badagokio, horiek garatzea. Think-Tankean planteatutako antzeko hausnarketa estrategikoko eremuekin lotuta daude. Gipuzkoako Foru Aldundiko Estrategiaren Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako urteroko deialdien bidez proposatzen dira. Proiektu-proposamenak lurraldeko hainbat erakunderen bidez planteatu ohi dira (elkarteak, fundazioak, enpresak, unibertsitateak, GKEak eta abar), eta, oro har, partzuergoetan biltzen dira horiek garatzeko. Proiektuen garapena urte batekoa da, gutxi gorabehera.

Azkenik, *Aurrekontu* Irekiak, herritarrek kezkak, nahiak, lehentasunak, gomendioak eta iradokizunak zuzenean adierazi ahal izateko ekimen bat da. Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Gipuzkoako udalerri gehienetan GFAren aurrekontuen esanahia eta edukia azaltzeko jardunaldiak antolatzen dira. Jardunaldi ireki horietan espazio publikoak prestatzen dira, herritarrek GFAren aurrekontu-proiektua ezagutu ahal izateko eta horietan barneratzeko proposamenak egin ditzaten.

GIPUZKOA LAB

Gipuzkoa Lab Etorkizuna Eraikizen esperimentazio aktiboko laborategia da. Ezagutza erabat berria ekoizteko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoak elikatu eta hobetzeko erronkei irtenbideak bilatzeko laborategia da.

Gipuzkoa Laben esperimentazio unitatea Proiektu esperimentala da. Proiektu esperimental bat Proiektuen Bulegoak proposatzen duenean jartzen da martxan. Proiektu Bulegoa Gipuzkoa Taldean sortzen diren ideiak Gipuzkoa Laben garatzen diren proiektu esperimentaletan eraldatzeaz arduratzen da.

Proiektu esperimentala berariaz eratutako diziplinarteko Lantalde batek garatzen du. Lantaldeak, gutxienez, honako kide hauek izan behar ditu:

• Gipuzkoako Lurralde Historikoko unibertsitateetako bat, ikerketa-lanaz arduratzen dena.

• Nazioarteko pertsona, erakunde edo sare bat, kontraste-lana bermatzen duena.

• Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakunde bat (enpresa, aholkularia, elkartea, fundazioa, udala, etab.), dinamizazioaz arduratzen dena.

• Gipuzkoako Foru Aldundiko Talde Teknikoa.

Gipuzkoa Lab, beraz, esperimentazio-prozesuak ingurune errealetara eramaten dituen laborategi bat da. Bertan, politika ekonomiko, sozial eta kultural berriak enpresa, elkarte eta zerbitzuetako esperientzia pilotuen bidez entseiatzen dira. Arrakasta-esperientziak aplikatzen eta partekatzen dira, eta huts egindako saiakuntzetatik ondorioak ateratzen dira. 2016 eta 2019 bitartean, Gipuzkoa Labek 9 proiektu esperimental garatu zituen (1. taula), eta horiei beste 24 proiektu gehitu nahi zaizkie 2020an. Ezarritako helburuak lortzeko, proiektu esperimental hauek gizartea, eragileak, udalak, Aldundia, unibertsitateak eta nazioarteko eragileak integratuko dituzte. Proiektu horietako batzuek etorkizuneko politikak indartu eta bideratuko dituzte, eta beste batzuek, aldiz, agian porrot egin dezakete, hortik dator haien izaera esperimentala.

—

1. taula.
Etorkizuna Eraikiz ereduaren osagaiak

Proiektu Esperimentalak	Deskripzioa	Inplikatutako eragileak	Partaide kopurua
Langileen partaidetza enpresetan	Pilotu esperientzia	20	1500
Kontziliazioa	Pilotu esperientzia	35	8000
Etxean Bizi	Menpekotasuna daukaten pertsonentzako programa	5	200
GazteOn Sarelan	Nerabetasunetik heldutasunera trantsizioa	3	12
Ok en casa	Zaintzaileen zaintza	4	400
Eskualdeko garapenerako laborategia	Lankidetzako gobernantza zabaltzeko plataforma	30	50
Mezenasgo kultura	Mezenasgoaren sustapena	6	15
Turismo adimentsua	Turismoaren modernizazioa	5	15
Gipuzkoa adimentsua	Eragile sozialekin lankidetza	6	30
Guztira		**114**	**10222**

Iturria. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2019

PROIEKTUEN BULEGOA

Proiektuen Bulegoa, Gipuzkoa Taldearen (eztabaidarako eta proposamenerako gunea) eta Gipuzkoa Laben (esperimentaziorako eta ikaskuntzarako gunea) arteko lotura eta harreman-logika bermatzeaz arduratzen den organoa da. Proiektu esperimentalen proposamenak aztertzen ditu eta, hala badagokio, horiek onartu eta abian jartzea erabakitzen du.

Gipuzkoako Diputatu Nagusiak proposatuta izendatutako pertsonek osatzen dute organo hau. Bere funtzioa Gipuzkoa Taldearen eta Gipuzkoa Laben arteko konektibitatea bermatzea eta bi espazioen jardueraren jarraipena egitea da. Baita ere, proposamenak baloratzeaz arduratzen da eta, hala badagokio, Think-Tank eta proiektu esperimentalak abian jartzea onartzeaz. Etorkizuna Eraikiz programaren urteko jarduera-memoria egitea eta Etorkizuna Eraikiz programaren bi urteko ebaluazio-txostena ezartzea eta egitea organo honen beste betebehar bat da.

ZEHARKAKOTASUNA ETA EUSKARRI-PROZESUAK

Etorkizuna Eraikizen ezarpena zeharkako hiru ildotan oinarritzen da: **ikerketa, nazioartekotzea eta sozializazioa.** Ildo hauek, Etorkizuna Eraikizen dauden deliberazio eta esperimentazio espazioetan erreferentzia marko bezala aktiboki presente egon behar dira. Lurraldearen egungo eta etorkizuneko erronkei ikuspegi eta irtenbide zehatzak eraikitzen lagunduko duten **informazioa, ezagutza eta ikaskuntza sortzeko** funtsezkoak dira.

Bestalde, hiru euskarri-prozesu daude: **kudeaketa, sozializazioa eta komunikazioa.** Hauek Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Laben garatzen diren jarduerei zerbitzua eta osagarria emateaz arduratzen dira: **euskarri tresnak** (kudeaketa), **pertsona eta taldeekin elkarreragiteko eta partekatzeko esparruak** (sozializazioa) eta **irismen eta hedapen zabalagoa** (komunikazioa).

ETORKIZUNA ERAIKIZ, EMAITZA ETA IKASKUNTZA NAGUSIAK

Etorkizuna Eraikiz programaren esparruan garatutako lankidetzako gobernantza ereduak, lurraldeko hainbat eragilek bultzatutako hainbat proiektu eta agenda eragin ditu. Dinamika hauek inplikazio garrantzitsuak izan dituzte Gipuzkoako lurralde-garapenean eta politika publikoen formulazioan, irtenbideak elkarlanean egituratuz eta ezagutza eta esperientziak elkartuz, lankidetzako gobernantzaren ikuspegitik etorkizun partekatua eraikitzeko.

Gobernantza-eredu horren hedapenak, politiken identifikazio, esperimentazio eta diseinuan hainbat gizarte-eragileren partaidetza inplikatu du. 2016an Etorkizuna Eraikiz abian jarri zenetik, 25.000 gipuzkoar eta 259 eragile ekonomiko eta sozial inguruk parte hartu dute lurraldeak epe labur eta ertainean dituen funtsezko erronkak eta beharrak identifikatzen.

—
2. grafikoa.
Erronkak eremu eta erakunde parte-hartzaileen arabera.



Parte-hartzen duten erakunde motak	
Erakunde pribatua	70
Erakunde publikoa	52
Fundazioa- Elkartea	37
Hezkuntza zentro ez unibertsitarioa	34
Kooperatiba	25
Elkarte soziala	20
Bestelakoak	8
Unibertsitatea	8
Pertsona Fisikoa	3
GFA	1
Gizartea	1



Iturria. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2019

Gipuzkoa martxan jartzen ari den eraldaketa-prozesu hau, politika publikoak gizarte antolatuaren bidez instituzionalizatzeko eredu berri bat gauzatzen saiatzen ari da. Hori ezin du alderdi politiko bakar batek garatu, ezta administrazioak bakarrik ere.

Horregatik, gobernantza-eredu honen inplementazio-prozesuaren ikaskuntzarik nabarmenenetako bat **lidergo partekatua** eraikitzea da. Elementurik konplexuenetarikoa bada ere, lidergoa partekatzen ikasten ari gara, eta hau, politikan ez da oso ohikoa. Egia esan, lidergo partekatuak, hasiera batean, inozokeria eta ahultasun gisa sumatzen dira, baina beren lidergoa partekatzeko gaitasuna duten gobernuak, nabarmentzeko gaitasun handiena izango dutenak izango dira.

Bigarrenik, legitimazio-iturri gisa ikasi dugun beste elementu bat **entzutea** da. Etorkizuna Eraikizen, aktore-sare zabal baten arteko harreman-espazio ireki eta harreman-dinamika ez-hierarkiko eta horizontalagoak planteatzen direnez, gizarteari entzutea bultzatu eta indartu nahi da, demokraziaren kalitatea hobetzeko eta konfiantza eta balio publikoa sortzeko bide egoki gisa.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako lankidetzako gobernantzaren esperientziak ikaskuntza nabarmena utzi du berrikuntza publikoaren arloan, Etorkizuna Eraikiz izeneko gobernu ireki eta lankidetzako eredu baten eskutik etorri dena.

Etorkizuna Eraikiz funtsezko pieza izan da Gipuzkoako lurralde-garapenean bat egiten duten eragileen arteko lankidetza-esparru egonkorra finkatzeko, eta agenda publikoa kolektiboki eraiki du, gizarte zibileko erakundeak, sektore pribatuko eragileak, akademia, funtzionario publikoak eta arduradun politikoak inplikatuz.

Garatutako proiektuei esker, lurraldearen plangintza estrategikoan apustu eraldatzaile berriak txertatu ahal izan dira pixkanaka, lurralde-ongizatea eta -iraunkortasuna ziurtatzeko. Hausnarketa partekatuko dinamika hau epe luzera begiratzeko eta gobernu-aldi batetik haratago joateko apustua da; horregatik, hedatu ahal izateko, tokiko kapital sozialaren lankidetza eta inplikazioa ezinbestekoa da.